

Año LIII. urtea

132 - 2021

Uztaila-abendua
Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Egiarretako hiru
eskuizkribu euskaraz
(XVIII.-XIX. mendeen
mugan)**

Juan Madariaga Orbea, Jose Luis Erdozia Mauleon

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIII. urtea - N.º 132. zk. - 2021

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Euskararen erritmoa neurtzen

Oroitz Jauregi 257

Egiarretako hiru eskuizkribu euskaraz (XVIII.-XIX. mendeen mugan)

Juan Madariaga Orbea, Jose Luis Erdozia Mauleon 279

Hizkuntza-tratamenduak *Dragoi Bolan*: hierarkia, gaiztotasuna eta etsaitasuna

Garbiñe Bereziartua, Beñat Muguruza 319

*Do It Yourself*etik planifikaziora.

Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak

Jone M. Hernández García, Ainara Santamaria Barinagarrementeria 349

Egiletasuna eta gorputza kritika feministaren argitan.

Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* nobelaren irakurketa bat

Ibon Egaña Etxeberria 375

Oltzako aldaeraren inguruan (1 – Arakilgo azpialdaera)

Koldo Artola 403

e5: euskararen komunitatearen garapenerako marko interpretatibo berria

Jone Goirigolzarri Garaizar, Inazio Marko, Ibon Manterola 473

Karmele Jaioren *Aitaren etxearen* kritika kolektiboa eta feminista:

proposamen metodologiko berritzailea

Gema Lasarte, Andrea Perales-Fernández-de-Gamboa 497

Modalitate-markatzaileak: partikula modalak ote dira euskarazko

partikula modalak?

Sergio Monforte 515

Praktika eleanitzak eta euskara, ingelesa irakas-hizkuntza bihurtzen denean:

kasu-azterketa bat

Nerea Villabona, Mikel Gartziarena 543

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /

Rules for the submission of originals

565

Egiarretako hiru eskuizkribu euskaraz (XVIII.-XIX. mendeen mugan)

Tres manuscritos de Egiarreta en lengua vasca
(finales del siglo XVIII e inicios del XIX)

Three manuscript texts written in Basque from Egiarreta
(late 18th and early 19th century)

Juan Madariaga Orbea
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)
juantxo.madariaga@gmail.com
<https://orcid.org/0000-0003-4641-8739>

Jose Luis Erdozia Mauleon
Euskaltzaindia
erdoziamaleon@gmail.com
<https://orcid.org/0000-0002-9662-949X>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv131.2>

Jasotze data: 2021/04/26. Behin-behineko onartze data: 2021/06/11. Behin betiko onartze data: 2021/07/28.

LABURPENA

2014. urtean Arakilgo Egiarretako abadetxe zaharrear, erlijio-gaia duten zenbait eskuizkribu, horietako hiru euskaraz, agertu ziren, zalantzarik gabe, herriko apezten baten idatziak. Ez dute datarik, baina XVIII. mendeko azken hamarkadaren eta XIX.eko lehen bietakoen artekoak izan daitezke. Artikulu honek, alde batetik, garai horretako Egiarretako testuinguru historikoaren berri ematen du. Honetaz gain, garai horretako apezten zerrenda egin eta horietako zein izan zitekeen eskuizkribuetako biren egilea ere ondorioztatzeko ahalegina egin da. Azkenik, eskuizkribuen transkripzioaren ondoren, haien hizkuntza-deskribapena dator, zenbait ondoriorekin batera.

Gako hitzak: Egiarreta; eskuizkribua; testuinguru historikoa; hizkuntza-deskribapena.

RESUMEN

En el año 2014 aparecieron en la antigua casa cural de Egiarreta (Arakil, Navarra) varios textos manuscritos, tres de ellos en euskera, de temática religiosa, sin fecha y sin duda redactados por alguno de los párrocos de esta localidad. Los textos podrían corresponder a la última década del siglo XVIII o las dos primeras del XIX. Se analiza, por una parte, el contexto histórico de esta población en este periodo. Además, se da a conocer la lista de los párrocos que ejercieron en Egiarreta y se intenta deducir cuáles de ellos pudieron ser los autores de al menos dos de los textos. Por último, se realiza un exhaustivo análisis de los textos con su transcripción y descripción lingüística.

Palabras clave: Egiarreta; manuscrito; contexto histórico; descripción lingüística.

ABSTRACT

In 2014, several manuscripts on religious themes, three of them written in Basque, appeared in the parish house of Egiarreta (Arakil, Navarre), without a date and undoubtedly written by a parish priest of this town. They could correspond to the last decade of the 18th century or the first two of the 19th. This article analyzes the historical context of the village in this period. In addition, it gives a list of successive parish priests in order to deduce who could have been the authors of two of these texts. Finally, an exhaustive analysis of the texts is carried out with their transcription and linguistic description.

Keywords: Egiarreta; manuscript; historical context; linguistic description.

1. SARRERA. 2. EGIARRETA XVIII. ETA XIX. MENDEEN ARTEAN. 2.1. Biztanleria. 2.2. Etxeak. 2.3. Ekonomia. 2.4. Hezkuntza eta hizkuntza. 2.5. Egiarretako parrokoak. 3. TESTUEN EGILEAK. 4. PREDIKUA (XAVIER DE GOLDARAZ APEZARENA, SEGURUENIK). 4.1. Transkripzioa. 4.2. Hizkuntza-deskribapena. 5. JARRAIBIDEA (JOSEPH MIGUEL DE EYARALAR APEZARENA, SEGURUENIK). 5.1. Transkripzioa. 5.2. Hizkuntza-deskribapena. 6. KOPLA TXIKIA EDO ERLIJO-BERTSOA. 6.1. Transkripzioa. 6.2. Hizkuntza-deskribapena. 7. ONDORIOAK. 7.1. Predikua. 7.2. Jarraibidea. 7.3. Erljio-bertsoa. 8. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

2014ko udazkenean, Egiarretako (Arakil, Nafarroa) abade etxean dagoen eliza-liburtegiari begiratu bat ematerakoan, testu batzuk aurkitu genituen (bost gaztelaniaz, bat latinez eta hiru euskaraz). Markatzaile modura ageri ziren liburuetariko¹ batzuetan eta eskutitzak, sermoien zirriborroak edo erritu jakin batzuetan erabiltzeko oharrak ziren. Ikusi dugunez, ia kasu guztietan elizako gaiak dira, eta idatziak non agertu ziren ikusita, badirudi Santa Maria Parrokian zerbitzatu zuten apezetariko batzuek idatziak izanzen zirela. Zoritzarrez, eskuartean ditugun euskaraz idatzitako testu hauek ez dute egile edo datarik zehazten. Beraz, ezin dugu segurtasun osoz jakin zein apezek idatzi zituen. Lehen idatzia ustez sermoi bat da, eta zazpigarren aginduaren inguruan hitz egiten du. Bigarrena, ezkontza-ospakizuna da eta azkena eliza-poema bat, seguruenik San Agustinen testu baten bertsoa. Idatzietan aurkitutako letra motek antz handia dute euren artean eta XVIII. mendearen bigarren erdian eta XIX.aren hasieran bertan erabiltzen zutenarekin bat egiten dute.

Lan honetan, hasteko, Egiarretako testuinguru historikoaren berri ematen dugu. Ondoren, testuen egileak nortzuk ziren argitzen saiatzen gara. Ondoren testuen transkripzioak eta azterketak aurkezten ditugu. Bi predikuak eta koplak edo erlijio-bertsoa,

1 Konkrétuki lehen bi testuak honako publikazio honetan agertu ziren: Juan Martínez de la Parra, *Luz de Verdades católicas y explicación de la doctrina cristiana*, Madril: Pedro Marin, 1783. Hirugarrena berriz, honako liburu honetan agertzen zen: Antonio de Eguileta, *Sermones para todas las dominicas del año*, Madril: Imprenta de Villalpando, 1814, 3 liburuki.

hirurak ala hirurak, bereizirik aztertzea erabaki dugu, autore ezberdinek egindakoak direlako eta, horrexegatik ere seguruenik, ezaugarri ezberdinak dituztelako. Lehen-lehenik eskuizkribuen transkripzioa eginen dugu eta jarraian hizkuntza-deskribapena, predikuetan agertzen diren hizkuntza-ezaugarri esanguratsuenak nabarmentzeko.

2. EGIARRETA XVIII. ETA XIX. MENDEEN ARTEAN

2.1. Biztanleria

Tarte horretan Egiarretak 175 bizilagun zituela esan dezakegu. Kontuan hartu dira Floridablancaren zentsua 1786an, Nafarroako Gorteena 1796an eta 1817an, eta Zentsu Orokorrarena 1860an. Hauei gehitu dizkiegu Historia Akademiaren (Real Academia de la Historia, 1802) eta Madozen (1845-1850/1986) hiztegiak (García-Sanz, 1985; García-Sanz & Zabalza, 1983, 63.-88. or.; Miranda, 1980, 97.-134. or.). Emaizta 1. taulan ikus daiteke.

1. taula. Egiarretako eta Arakilgo biztanleria

	1786	1796	1802	1817	1847	1860
Egiarreta	175	149	170	-	204	173
Arakil	2.190	1.933	2.204	2.078	2.250	2.377

Ikusten dugu Arakilgo eta Egiarretako biztanleriek oso antzerako bilakaera dutela denbora-tarte horretan. Oro har, ontzat ematen da 1730eko hamarkadaz geroztik Nafarroako biztanleriak hazkundea izan zuela Konbentzio Gerrateraino (1794-1795). Izan ere, gerrate honek izugarritzko giza galerak sortu zituen zenbait herritan, gehienbat Iruñeko eta Agoitz-Zangotzako merindadeetan. Bereziki 1786-1796 tartean, Sakana osoak biztanleriaren % 11,7 galdu zuen eta Egiarretak % 14,9. Egiarretan 1786-1793 tartean heriotzen batez bestekoa urteko bi pertsonakoa izan zen. 1795ean, berriz, 10 hil ziren (García-Sanz, 1985, 363. or.). Iruñeak biztanleriaren % 7,2 galdu zuen, baina kasu aipagarriak ere egon ziren: Orreagak, esate baterako, % 54,4 galdu zuen. Gerratearen ondorioz, heriotzez haratago, biztanleriaren kopuruan benetako eragina izan zuena tifus-izurritea izan zen. Hasieran soldadu frantsesen artean izan zuen agerraldia, baina berehala bertako populazio zibilera pasatu zen. Gainera, gaixotasunak oztopatu eta zaildu egin zituen nekazaritza-zereginak; hori dela eta, askoz ere jaki gutxiago bildu ziren. 1802rako biztanleriak garaiko bere ohiko maila berreskuratu zuen, baina beste izurrite bortitz batzuek populazioaren beherakada nabarmena eragin zuten mende guztian zehar (Martínez, 2004). Aipatu besterik ez dago 1823ko sukar horiaren izurritea edo koleraren gaixotze-tasa 1834an, 1855ean eta 1883an. Zenbatesten da 1855ean Nafarroako biztanleriaren % 4 koleraz hil zela. Gainera, elgorriaren eta baztangaren izurriteak egon ziren 1860an eta 1880an. Egiarretan, azaldu bezala, garai honetan normalena zen urteko 2 edo 3 pertsona hiltzea. Bada, 1834an hil ziren 6 pertsonetariko bat koleraz hil zen, beste bi «ohiko gaixotasunez» eta beste hiru kasutan ez da ageri heriotzaren zergatia, baina ez zen arraroa izango izurritearen ondorioz izatea.

Gerrateak, izurriteak eta uzta eskasak zuten eraginaz gain, biztanleriaren hazkundea baldintzatzen zuen egiturazko beste faktore bat zegoen: haurren heriotza-tasarena. Zenbait arrazoi zirela medio, hala nola higiena, elikadura edo obstetriziaren atzerapena, hiltzen ziren haurren kopuruak ikaragarria izaten jarraitu zuen. Zenbatesten da Sakanan 1841-1876 tartean, bataiatutako haurren % 39,9 erditu eta berehala hil zela.

2.2. Etxeak

XVIII. mendeko bigarren erdiaren eta XIX.aren lehenengoaren artean, Egiarretan hogeita hamarren bat etxe egonen ziren.

Parrokiako apaizen hautaketa egiten zen bizilagunen bozkatzeko sistemaren arabera, gehi errege-botoarena. Erabaki horiek auzokideei zegozkien eta etxe bakoitzak boto bat zuen; beraz, esan dezakegu etxeak bakarrik bozkatzeko zuela parroko hautaketan. Dokumentuetan hautaketa bozak horrela agertzen dira: «Martin de Atondo por la casa Dorreluzea a favor de don Juan de Irurzun» (hautagaietako bat). Egia esateko, etxe guztiek ez zuten eskubide hori, bakarrik garrantzitsuenek. Egiarretako apezaren hautaketan, 1740-1743 artean, etxe hauek parte hartu zuten: Aliassena, Altunarena, Alzarenecoa (Marcalecoa), Apezarrarena, Ariñenecoa (Allinena, Allinecoa), Astrañerena (Astrañarena), Baquenecoa, Dambolinarena, Dorreluzea, Jorjerena, Labaldea, Luisarena, Martinandi, Miquelena (Michelena), Palacio de Cabo de Armería, Salacoa, Sastrearena, Sastuarena, Sattostteguirena eta Ycazquiñarena².

Hirurogei urte beranduago, 1802ko Historiaren Akademiaren Hiztegiak dio 26 etxe zeudela, eta 1847koan, berriz, Madozen Hiztegiak kopurua handitu zuen 40 etxe zirela esanez. Normalean etxe bakoitzean familia bakarra bizi zen. Garaiko heriotza-tasak zirela eta, nahiz bikoteek seme-alaba asko izan, horietako asko ez ziren nerabegarora iristen. Batez ere haurren heriotza tasa oso altua zen. Sakanan 1841-1876 tartean bataiatutako haurren % 39,9 erditu eta berehala hiltzen zen. Gaiztotutako egoera ekonomiko-demografikoetan heriotza-tasak ikaragarri igo ziren. Horrela, adibidez, Olaztin 1805-1816 bitartean haurren heriotza-tasa % 47,5ekoa zen (García-Sanz, 1985, 292., 296. or.). Hori dela eta, familiak, kide askotakoak izan arren, zertxobait murriztuta geratzen ziren. Sakanan, batez besteko seme-alaben kopurua XVIII. mendeko bigarren erdian 4,5ekoa zen eta ia 5era iritsi zen XIX. mendeko lehen erdian (García-Sanz, 1985, 274. or.). Hala eta guztiz ere, etxeetan senar-emazte eta seme-alabez gain beste senide batzuk ere bertan bizi ziren, aurreko belaunaldikoak izan edo belaunaldi berekoak. Beraz, familien tamaina handiagoa zen. Begiratzen badugu 1802ko Akademiaren Hiztegiak dioena, Egiarretan 40 auzokide zeuden (familia-unitate) eta 204 «arima» (bizilagun). Honen arabera, familiako 5,1 bizilaguneko batez bestekoa ematen digu. Baina 26 etxetan banatzen zirenez, etxeko 7,8 bizilagun bizi ziren.

² Archivo Diocesano de Pamplona (ADP), c/1.901, 11 zk. 1740-1743, 62.-65. or. Fermin Joaquin de Lazcoz parrokoaren hautaketa. Zenbait etxek izen edo aldaera ezberdinak jasotzen dituzte multzo dokumental berean.

Normalean, etxe bakoitzaren grafia eta etxe-izena aldatuta agertzen da eta apez edo idazkari bakoitzak idazten zuen berak aditzen zuenaren arabera. Ez da harritzekoa, beraz, dokumentu berean etxe baten izenaren aldaera bat baino gehiago agertzea. XVIII. eta XIX. mendeetan zehar egin diren zenbait dokumenturen ikuskapenetan, Egiarretako etxeetan honako izen hauek agertu dira (jasotako aldaera guztiak azaltzen dira; parentesi artean zein urtetan agertzen diren etxeen aipamenak):

- Albirenazarra (1871).
- Aliassena (1740), Aliasena (1752), Alisenecoa (1795), Allisenea (1797), Alissena (1771), Alisenea (1844).
- Aliñena (1702), Allienena (1711, 1721, 1759), Allinenea (1730), Ariñenecoa (Allinenea, Allinecoa) (1740), Allenea (1778, 1786, 1788, 1795, 1803, 1806, 1808, 1814, 1815, 1819), Allinena (1752), Allerenena (1844).
- Altunarena (1740), Altunea (1806), Altunenea (1815, 1844).
- Alzarenecoa (Marcalecoa) (1740), Arzara (1844).
- Apezenea (1781, 1790), Apezarena (1745).
- Apezarrena (1722, 1743, 1772, 1773, 1774, 1775, 1804, 1805, 1807, 1810, 1816, 1824, 1827, 1844), Apezarrarena (1740, 1792, 1795, 1797, 1799), Apezarren (1756), Apezarranea (1791), Azpezarrarena (1793, 1794).
- Arbañena (1829).
- Arichena (1810, 1816).
- Astarrain (1735), Astrain (1739), Astrañerena (Astrañarena) (1740), Astrañena (1752, 1756), Astrayñena (1753), Aztrañena (1769, 1775, 1806, 1810), Aztranea (1799), Artzañenea (1820), Altrañena (1824, 1826), Aztrañena (1844).
- Baquierena (1712, 1733), Baquia (1716), Baquearena (1731, 1740, 1771), Baque-necoa (1740), Baquea (1740), Baqueña (1782, 1783, 1791, 1806, 1814, 1816).
- Balteguia mayor (1844).
- Balteguia menor (1844).
- Damboliñerena (1712, 1749), Dambolinare (1724), Damboliñare (1726), Dambolinarena (1726, 1740), Damboliñarena (1732, 1788), Dambolinerena (1744), Dambolinena (1752), Damboliñena (1770, 1799, 1844), Dambolinea (1792), Dambolinenea (1793), Damboliñenea (1803, 1813, 1816, 1832), Dambollinena (1820).

- Dardorena (1844).
- Dorreluzea (1740), Dorrelucea (1777, 1834, 1844).
- Echeverria (1813), Echeverricoa (1871).
- Jorjerena (1740, 1752, 1754, 1760, 1770), Jorgenea (1779), Sorguerena (1820), Zorjerena (1829), Jorgerena (1844).
- Ycazquiñarena (1740), Igeuzquiñena (1828), Yruezquiñena (1844).
- Ichasperri (1834).
- Yturmendi (1844).
- Dabaldea (1712, 1775, 1813, 1817), Labalde (1713), Labaldea (1740, 1752, 1795, 1805, 1808, 1844).
- Lopesastre (1724, 1743, 1790), Lopesastrenea (1844).
- Lugenea (1705, 1798, 1803, 1810), Lugenia (1795), Zugenea (1795), Lugerena (1752, 1808, 1844), Lujerena (1731, 1738, 1829, 1831), Luferena (1826).
- Luisarena (1740, 1744), Lusirena (1728), Luiserena (1740, 1749), Lussenia (1773), Luseña (1785).
- Machitorea (1744, 1809), Machittonea (1752), Machito (1758, 1764, 1766, 1778, 1782, 1789), Machinto (1803), Machintorea (1819), Michitorea (1832), Manchitorea (1844).
- Martinandi (1710, 1720, 1740), Martinaundiarena (1781), Martinandiarena (1927).
- Miquelena (1703, 1713, 1740), Michelena (1740), Miquelenea (1775, 1778, 1786, 1799, 1803, 1809, 1814), Miguelenea (1790, 1795, 1844, 1871).
- Ormaiztegui (1844).
- Palacio (1709, 1740, 1776, 1826, 1829), Dorrea (1844).
- Portunea (1752), Portuarena (1749), Portuenea (1768, 1769), Portrenea (1778, 1800), Portronea (1784), Portaenea (1787), Portanea (1803), Portraneia (1813), Portarena (1824, 1827), Portrerena (1844).
- Salacoa (1740, 1844).
- Sastrearena (1740), Sastrerena (1844).

- Satrustena (1707), Satrusteguirena (1724), Sattostteguirena (1740), Sastuarena (1740).
- Zamarguinia (1790).

2.3. Ekonomia

Egiarretako ekonomia nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritzen zen, batez ere zerealetan eta bazka landareetan. Adibide modura, 2. taulan jasotzen dira parrokiako liburuetan, 1739-1744 bosturtekoaren hamarrenetan («frutos decimales»), ageri diren datuak.

2. taula. Egiarretako hamarrenak 1739-1744 bosturtekoan

	Batez bestekoa 1739-1744, erregutan
Garia	210,8
Artoa	113,3
Oloa	27,5
Garagarra	22,1
Zalkea	13,7
Ailorbea	2,7
Ilarra	2,3

Esandakoari lihoaren eta baba handiaren kopuru txiki bat ere gehitu behar zaio. Emandako datuak produkzioaren hamarrenari zegozkionak direnez, XVIII. mendearen erdi aldera Egiarretan, urtean 2.100 gari-erregu ekoiztuko ziratekeen batez beste, 1.130 arto-erregu eta beste 680 erregu zereal eta bazka-landare. Bestalde, ganadu mota ezberdinak hazten ziren: behiak, ardiak, zerriak. Gainera, ohikoa zen moduan, haritzek osatutako basoak modu apalean ustiatzen ziren. Horrela, 1765ean Egiarreta, Errotzekin batera, Artilleriarentzako (García-Sanz, 1985, 274. or.) egur-hornitzaile bezala aritu zen. Beste batzuek, aldiz, mandazain-lanak egiten zituzten. 1847ko Madozen Hiztegiak horrela dio: «Algunos habitantes se dedican a la arriería y exportación de los artículos sobrantes» (1845-1850/1986, VII. liburukia, 448. or., XII. liburukia, 639. or.).

Urte berean eta informazio-iturri berari jarraituta, zergapekoen aberastasuna 784.597 errealetakoa zen, beraz 1.833 erreal auzoko eta 358 erreal bizilaguneko. Dena den, Sakanaren kasuan (Egiarreta barne), bere sistema ekonomikoak egiturazko gabeziak zituen. Ezinezkoa zitzairen beren lurretatik alea birlandatzeko eta bizilagunei jaten emateko adina lortzea.

Gerrateekin edo izurriteekin zerikusia zuten krisi ekonomikoak ohiko bihurtu ziren garai honetan: alde batetik, gerrateak (Konbentzioarena, Napoleonikoa, Hirurtekoarena, Lehen karlistada), eta, bestetik, izurriteak (1794-1795eko tifusa, 1834ko eta 1855eko kolera, 1860-1880ko elgorria eta baztanga...). Adibide modura, 1794-95ean

frantses armadak egin zituen ganadu, ale, bazka, altzari eta diruaren lapurretek sekulako kalteak sortu zituzten eta, hori nahikoa iruditu ez eta, izugarritzko haritz-kopurua bota zuten. Hau dela eta, gerratea pasa eta gero Arakilek 25.453 pesoko (203.624 errealetako) konpentsazio ekonomikoa eskatu zuen, baina kontuan izan gabe herri kalteuen galerak. Izan ere, Irurtzunen, Etxeberrin eta Aizkorben 50.000 errealetako balioa zuten 4.000 haritz baino gehiago bota zituzten (García-Sanz, 1985, 355. or.).

2.4. Hezkuntza eta hizkuntza

Madozen Hiztegiaren datuen arabera, 1847an Egiarretako udaletxeak kartzela eta eskola zituen. Bertara 25 neska-mutiko zihoazen. Maisuak bere irakasle-lanak egiteaz gain, udal-idazkariarenak ere egiten zituen eta guztiagatik 750 erreal jasotzen zituen, «*demás de la pequeña retribución que saca de los niños que acuden de un pueblecito inmediato*». Dioen «inguruko herritxoa» ezin zen Etxeberri izan (bertako haurrak Aizkorbeke eskolara joaten zirelako) ez Hiriberri, ezta Etxarren ere, euren eskola propioa zutelako; beharbada Murginduetakoak izango ziren, han ez zutelako eskolarik.

Hizkuntzari dagokionez, 1860-1870eko hamarkada arte, Arakilgo bizilagun guztiak (2.400-2.600 artean), Egiarretakoak barne, euskal hiztunak ziren. 1869an Louis-Lucien Bonaparte printzeak Arakil eremu euskaldun bezala identifikatu zuen, euskalkiari dagokionez hegoaldeko goi-nafarrera; azpieuskalkia, berriz, Iruñerrikoa, Oltzako aldaerakoa, gehiago zehazturik. Hala ere, azken gerra karlistaren garaian, euskarak atzerakada nabarmena jasan zuen oso denbora laburrean. Izan ere, 1935erako Arakilen, bakarrik 250 euskal hiztun zeuden. Are gehiago bizkortu zen prozesu hau 1936ko gerra zibilaren eta frankismoaren eraginez. Euskara desagertzeaz egon zen XX. mendearen erdiko hamarkadetan. Arakil bailara osoan 20 euskaldun baino ez ziren gertzen 1970ean.

2.5. Egiarretako parrokoak

1747ko urtarrilaren 27tik 1770eko otsailaren 25era, abade-kargua Juan Martin de Gainzak hartu zuen. Hala eta guztiz ere, azken urteetan zahartua edo gaixorik egon zela ematen du, bi abadeorde izan zituelako. Izan ere, 1768tik aurrerako eliz liburuen aktak Joseph Miguel de Eyaralar abadeordeak sinatzen ditu, nahiz eta kasuren batean Gainzak berak ere sinaturik ere ageri diren. 1770 eta 1772 artean abadetza-lanak egiten jarraitu zuen Eyaralarrek, eta 1772 eta 1777 artean abadeorde Juan de Lazcoz egitarretarra ageri da eta data horretatik 1800 arte, abade-jabe bezala. Juan de Lazcozek oso ibilbide profesional interesgarria izan zuen. Hasieran, 1765ean, Villamayor de Monjardingo³ abadetzara aurkeztu zen, baina ez zuen kargua lortu. Orduan Egiarretakoek, herrian lan egin zezan, honako maniobra hau egin zuten: urte berean abadeak, zinegotziak eta Egiarretako kontzejuak sakristau legoa eklesiastiko bihurtu zuten (hori guztia legoak zerbitzatu beharrean, abadeak zerbitza zezan) eta horrela Juan de Lazcoz

3 ADP, C/2.016, 4 zk., 39. or.

lehen sakristau eklesiastiko izendatu zuten⁴. Ondoren, esaterik ez da behar, Martin de Gainza hil zenean mailaz igo zen etengabe⁵: hasieran ordezeko, ondoren behin-behineko eta azkenik abade-jabe bezala.

1803an Lazcoz hil zenean, indarrean zegoen planaren arabera, lehiaketa bat gainditu behar zen lanpostua eskuratzeko. Bi aurkeztu ziren Egiarretako lanpostura: Undianoko abadea zen Martin de Percas eta Miguel Fermin de Astiz, Machintorena etxeko egiarretarra eta Errozko abadea. Biek gainditu zuten lehiaketa, baina auzokideek nahiago izan zuten Astiz⁶ izendatzea. Parrokoaren kargua bete zuen 1819an hil zen arte. Denboratarte labur batez behin-behineko bi abade agertzen dira, Xabier de Goldaraz Etxeberriko abadea eta Miguel Antonio de Garriz. 1820an beharrezkoa zen lehiaketa egin zen. Hasiera batean, bakarrik Miguel Antonio de Legarra, Goldarazko abadea aurkeztu zen. Onartua izan zen, baina, arrazoia ezagutzen ez badugu ere, ez zuen kargua hartu. Ondoren, plaza berriro iragarri zen eta hiru hautagai aurkeztu ziren. Auzokideek Ollakarizketako Miguel Francisco de Senosian⁷ aukeratu zuten. Hala ere, 1830ean, Egiarretako abadetza hutsik zegoen, Senosiain Berriozarrera lekuz aldatu zutelako. Abadeorde-lanak Fray Isidro de Jesus Maria karmeldar oinutsak betetzen zituen eta behin-behineko abade bezala, aldiz, Javier de Goldaraz Etxeberriko abadea. Lanpostua betetzeko, Jose Ramón de Larumbe, Etxarrengo patrimonialista (Etxarrengo) eta Marcos de Astiz, Latasako presbiteroa aurkeztu ziren. Parrokia Larumbek⁸ irabazi zuen 1831ko urtarrilean eta bertan jarraitu zuen gernu-gaitzak jota hil zen arte, 1869ko ekainaren 3an.

XVIII. mendearen erdialderako, Egiarretako parrokiak sortzen zuen errentaren balihoa honakoa zen: sarrera-aseguruetan, ganberako 24 urrezko dukat; eta zalantzazkoetan, txanpon bereko 120 dukat. Guztira, urteko 144 dukat, hau da 68.256 marabedi edo 2.007 erreal eta erdi.

Egiarretako parrokiako patronatua herriko auzokideek zeukaten eta horiei «erregearen boza» gehitu behar zaie (boz hori agintean zegoen erregeordeak ematen zuten). Horiek guztiek euren botoen bidez erabakitzen zuten zein zen egokiena eta zein egokitzen zen hobekien euren interesetara. Abadeen hautaketa-aktetan eskribauak auzokideen⁹ botoak jasotzen zituen. Egoera hau 1783an¹⁰ parrokiak egindako benefiziatu-planean erantsi zen. 1865ean egiaztatu zen patronatu-eskubidea, hau da, herriko auzokideek, erregearen botoarekin batera¹¹, aurkez zitzaketan hautagaiak Egiarretako abadetzarako. Plaza atezaten zutenen artean beraiek ziren abadea aukeratzen zutenak. Abadetza-izendapenaren

4 ADP, C/ 1.075, 6 zk., 19. folioa.

5 Lazcozen hautaketa abade moduan, ADP, C/2.428, 7 zk.

6 ADP, C/ 2.662, 2 zk.

7 ADP, C/ 3.026, 2 zk.

8 ADP, C/ 3.044, 1 zk.

9 Adibidez, 1743an Fermin Joaquin de Lazcoz aukeratu zenean, auzokideen botoa jasotzen da eta patronatu eskubidearen frogaren agiria. ADP, C/ 1.901, 11 zk., 106. or.

10 ADP, C/ 2.748, 5 zk.

11 ADP, C/ 3.194, 7 zk., 25. folioa.

ondorioz auzia suertatzen zenean, 1740tik 1743rako esate baterako, lekukoek haien iritzia eman aurretik, auzokideek parrokoa izendatzeko eta aurkezteko zuten eskubidea berresten zuten. Horrela deklaratu zuen, esate baterako (beste guztiak bezalaxe), Hiriberriko abadea zen 39 urteko Fermin Juachin de Huicik:

[...] dijo el testigo, que en este país es publico y notorio y común decir que a S. Mag.^d (Dios le guarde) y a los vecinos del lugar de Eguiarreta les toca, y pertenece por posesión inmemorial quieta, y pacífica el patronato y derecho de presentar y nombrar el Abbad de la Parrochial del dicho lugar en todas las bacantes, y esto mismo ha visto el testigo practicar en su tiempo, y lo a oído a sus mayores, y mas ancianos personas de entera fee y crédito sin duda ni cosa en contrario, y esto responde [...]¹².

Ohikoa zen oso, tamaina eta ezaugarri hauetako herrietan, bizilagunek nahiago izatea herriko abadea izendatzea, eta ezin zenean, inguruetakoa. Behin-behineko abadeak hautatzeko premia zegoenean, zalantzarik gabe, herri hurrenetakoak izendatzen ziren: Etxeberri, Zuhatzu, Etxarren, Hiriberri... Kontuan hartuta Egiarretako populazioa, ohikoa zen, urteak aurrera egin ahala, familia guztietan parroko bat baino gehiago izatea.

Bestalde, «Arakil bailarako abadeen anaiarte» elkarteak haraneko abade guztiak (Egiarretakoak barne, jakina) biltzen zituen. Zereginen artean, araututa zegoen euren tango bat hiltzen zenean beste guztiak hiletara joatea. Horrela gertatu zen, esate baterako, 1820ko apirilaren 19an, Arakil bailarako abade guztiak Miguel Fermín de Astizen hiletara gonbidatu zituztenean.

Era berean, gogoratu behar dugu 1709an Santiagoko kofradiak Itsasperi Kaperautza sortu zuela. Gero, 1778an, sorrerako konstituzioa aldatu egin zen eta urte horien bueltan, kofradiaren funtzionamendua ere bai. 1781ean¹³ Itsasperi kofradeek patronatua Arakil bailarako alkate eta zinegotziei utzi zieten eta urte berean konstituzio¹⁴ berriak idatzi ziren. Horien arabera, prioreak eta eliza zein herri diputatuek lehenik eta Udalak gero, honako abadeak Itsasperi kapilau izendatu zituzten: Juan Garcia Lazcoz (1778an uko egin zion), Miguel Antonio de Garriz (urte¹⁵ horretan jarraitu zuen), Ángel Díez de Ulzurrun etxarrendarra 1787an¹⁶, Martín Ángel de Garriz zuhatzuarra 1791an¹⁷, Josef Javier de Goldaraz etxerberriarra 1804an¹⁸, Fermín de Oroquieta (1821ean uko egin zion kaperautzari Urritzolako abade izateko) eta Ramón Esteban de Cristobalena hiriberriarra¹⁹, zeinek aurrekoaren kaperautza hartu baitzuen.

12 ADP, C/ 1.901, 11 zk., 106. folioa.

13 ADP, C/ 2.908, 22 zk.

14 ADP, C/ 2.910, 17 zk.

15 ADP, C/ 2.443, 17 zk.

16 ADP, C/ 2.495, 19 zk.

17 ADP, C/ 2.608, 10 zk.

18 ADP, C/ 2.908, 22 zk.

19 ADP, C/ 3.234, 3 zk.

3. TESTUEN EGILEAK

Arestian aipatu bezala, testuak data eta egilerik gabe agertu ziren, beraz egileak zeintzuk diren jakiteko posibilitate bakarra Egiarretako parrokoen idatzietan ageri den kaligrafia konparatzea da. Era berean, ez dugu segurtasunik testu bat liburu jakin batean agertu arren, testua data berekoa edo beranduagokoa den jakiteko, ez baitugu bermerik norbaitek beranduago lekuz aldatu ote zuen ziurtatzeko. Hala ere, badugu eliza-liburutegiaren antolamendua eta abade bakoitzak eman dion erabilera ulertzen laguntzen duen datu esanguratsu bat: zenbait liburuk dituzten oharra eta *exlibrisak*. Hala da, liburu gutxi batzuek egileak eskuz egindako identifikazioa daramate eta kasuren batean erosketa-data. Dena den, horrelako zortzi baino ez dira agertu.

Informazio hori dela medio, harritzekoa bada ere, esan dezakegu eliza-liburutegiari egindako ekarpenik handiena Egiarretan oso denbora laburrean egon zen behin-behineko abade batek egin zuela, Xabier (Javier edo Xavier) de Goldaraz Etxeberriko abadeak. Izan ere, 1819an Martín Fermín de Astiz hil zenean, parrokiaren ardura hartu zuen Miguel Antonio de Garrizekin batera, Miguel Francisco de Senosianek 1820an plaza atera zuen arte. Beranduago, 1830ean parrokia berriro hutsik geratu zenean, atzera berriz, behin-behineko lanak bete zituen hilabete batzuetan. Beraz, liburuen jabea ezagutzen dugun zortzi liburu horietatik lau ematen du Javier de Goldarazek²⁰ zirela, nahiz eta horietariko bi beranduago Egiarretako Ramon de Larumbe²¹ abadeak erosi zituen. Bi horiez gain, Larumbek beste bi liburu²² erosi zituen. Zazpigarrenean «Es de la iglesia de Eguiarreta»²³ dio bakarrik eta azkena zenbait fraideren eskuetatik pasatu zen eliza-liburutegira²⁴ iritsi aurretik.

Kontuan hartzekoa da euskaraz idatzita agertu diren testuetariko bat Larumberen liburu batean agertu zela, konkretuki *Sermón para todas las dominicas del año*. Madril, 1814, eta horrela dio bere azalean: «Compre los tres tomos de Dominicas en

- 20 Larumbek erosi zituen bi liburuez gain, gero aipatuko direnak, Goldarazek beste bi hauek izan zituen. Honako oharra daraman *Catecismo* bat: «Xabier Goldaraz abad de Echeverri» eta *Libro de la Oracion y Meditacion de fray Luis de Granada*, Iruñea, Xavier Gadea, urterik gabe. Jarraian honako aipamena du: «Don Javier Goldaraz, abad de Echeverri · Este libro es de Maria Lucas de Zubiria, regalada su confesor». Badirudi hasiera batean Goldarazena zela, baina bere aitortzaile bati eman zion eta azkenik honek parrokiari.
- 21 Konkretuki *Platicas dominicales ordenadas por Francisco Miguel de Echeverz* (Iruñea: Pascual Ibañez, 1769) liburuan hauxe dio: «Don Xabier de Goldaraz abad de Echeverri. Comprado después por don Jose Ramon Larumbe, abad de Eguiarreta». Eta, *El sacerdote santificado* (Madril, 1788) liburuan, beste hauxe: «Es de don Javier Goldaraz abad de Echeverri. Lo compro don Jose Ramon Larumbe después de la muerte de D. Javier Goldaraz, 1844».
- 22 Gero aipatuko den *Dominicas* liburuaz gain, Larumbek beste liburu hau erosi zuen: *Institutionum Philosophicarum* Francisco Jacquierrena, Zaragoza: Polo y Mongue liburudendan, 1812; bertan aipatzen da soilik: «Larumbe».
- 23 Hauxe da: *Fasciculus Exorcismorum Conjuratum Orationum*, Osca (Huesca): Mariano de Larumbe, 1764.
- 24 *Index Biblicum* bat da eta zenbait aipamen jasotzen ditu: «Fr. Ano.^m de Varron usus», «Compre este libro por cinco reales en la Almoneda de fray Thomas Izquierdo yo fray Aniceto Gonzalez», «Habet ad usum Fr. Faustinus a Fernandez cum licentia sui superioris. Lo puso un fraile».

Pamplona el dia 23 de noviembre de 1830 y me costaron 18 pesetas y media. Jose Ramon Larumbe».

Bertan argi ikus dezakegu Xabier de Goldarazek sinatutako heriotzen, bataioen eta konfirmatuen aktek erakusten duten kaligrafia bat datorrela aztertuko dugun lehen testuarekin (zazpigarren manamenduaren inguruko sermoiarekin). Ziurtasunez egiazta dezakegu, beraz, bera izan zela egilea. Beste bi testuen kaligrafia ere oso antzekoa da, baina ez guztiz berdina, Egiarretan ibilitako beste parrokoen kaligrafiarekin alderatu dugunean, segurtasun osoz ez bada ere, zantzuak ditu Joseph Miguel de Eyaralarena izateko. Halere, berretsi dezakegu testuak XVIII. mendeko azken hamarkadakoak edo XIX. hasierakoak direla.

4. PREDIKUA (XAVIER DE GOLDARAZ APEZARENA, SEGURUENIK)

4.1. Transkripzioa

7.^{ren} Mandamenten ez ebastea

Ez da bear prueba gueiago icusteco ebasteen eguiten dela becatu ezpada jaquitea dagoala debecaturic Jaingoicoaren legueco Zazpigarren Mandamentuen: non furtum facies; eta dela drecho naturalaren contra ceñec erraten duen, ez dela quendu bear besteri nai ez guiñuquen ore quendu zaguten guri esplicatu ber dudena da, becatu orren grabedadea, eta bere iru circunstancia edo especiec, cein diran ebastea, rapiñe, eta sacrilegio ceñetaco suponien dut gauce ore guzie dañu ematen diona progimoari ondasun, edo aciendaren gañean; deicen da ebastea; eta diot ebastea dela arcea gauce secretoan, edo iduquicea javearen vorondatearen contra. Rapiña deicen da quencea hacienda inder(r)e(s)²⁵ edo jabea beguire daguala, bere personaren presencie edo desonrra causacen duela. Eta da sacrilegioa man(da)mentu onen contra ebastea gauce sagradue, edo leen sagratutic icetie eta salcen bada gauce sagradue con^{ver}ticen da simonie; iru circunstancie especien distintoac eta irurec bear dire edo izanen dire becatu mortalac, baldin ebasten dena, iduquicen dana, edo dañu ematen dana bada gauce grabea eta baldin bada gauce chiquie, edo guti balio duena izanen da becatu beniala. Eta materio-netan, ez badaiteque eman gauce ciertoric, cergatic probe baten dañu andiagua eguiten zaio ebasteen bier leen bat.

Au bera ebasi balaquio baño abrasa zenari; cierto dena da, ebastea lecu ebetaco gende conbeniencieric andienari lau erreal; izanen da becatu mortala; eta beste medianoqui aberasai ebastea, bi erreal, eta izan daiteque ere becatu mortala gauce guti balio duena; eguiten bazaio dañu grabea javeari nola den quencea ogui bet probe batei, ceñec ez dauquen besteric sustentaceco famillie egun artan; eta orbat diot oficiele

25 Parentesi artekoak guk gehitu dizkiogu, lerro bukaera izanik eta euskarriak tolesdurak dituen ez baitago hitz osoa irakurtzeko modurik. Bestalde, <s> baliatu dut, dokumentuan hizki hori erabiltzen delako instrumentala ageri den kasu guztietan.

batei quencen instrumentue ceñequi erabaci bear duen jornala egun artan. Arrazue onengatic ez da beguiretu bear ebasten den gaucera, icusteco den, edo ez becatu mortala, edo veniala, baicic baite ere seguicen den dañure ebastetic. Ebasten duenac guti, egun lau cerradu (?)²⁶ biar Chafon erdi bat, allegatu esquero lau errealetera, azqueneco acionean cometicen du becatu mortala. Anicec ebasten dutenean gauzeren bat bacoizac ebasten duena ere bada gauc lebea, guciec unituric baldin bada materie grabea cometicen du^{te} becatu mortala. Serbizuco nirabebeac ebasten badute gauc grabea, ceren uste duten irabazten dutela ematen zaioten soldata baño gueiago cometicen dute becatu mortala, cergatic nausiec esanzoque nirabeari esanciona, Christoc batei: eciñen igualatu nerequin diru batean? Salcen dutenac ardua, garie, araguie edo oguie, naurri, edo pisu, legueac aguincen duten baño chiquiangoan; allegatu esquero materie grabera cometicen duzu becatu mortala, eta daude obligaturic restitucioen eguitera, eta orbat prestacen duen arrec diru, gari, edo beste gauceren bat condicioarequi a(s)co denboraco bear diotela izuli cerbait guei(o)²⁷ cergatic den usure, eta da Jaingoicoac Saneliasen agotic manatu zuen orren contra ize²⁸ abequi; prestazazu probeari esperatu gabe interesaric, eta esaten badute ere cembait moralistec eraman daitequela cerbait gueiago, prestacetic seguicen zaionean dañue, gueienequin, ez eguin galde eguin gabe gizon jaquinsueri.

Orbat diot erosten duten aiec gauc saldu ez dezaqueten ayei, eta oguien menosprecioan, eta cembait orlaco izanen da munduen, beguiretu gabe beren conciencieri, solo aumentaciagatic ondasun isuec eguiten dutenac beren condenacioraco; bada jaquiⁿ veza becatarie oc gucioc daudela obligaturic eguitera restitucioa bide ontas bil duten gucie, edo condenacera. Bada beste ebaste genero bat, eta da escacen duten ayec prestatuic ez beñere pagacera. Eguie esateco orlaco gendeac cometicen dute becatu ebastearena, cergatic iduquicen duten besteren gauc jabearen borondate arrazuescoaren contra, izanic ez uquecearequin zorra uste dute complicen dutela; ez batidu aci²⁹ bezela añaditus dañue, ez pagacearequin dezaquetelanic; eta orañic gai^{tu}ago dena da allegacen derelanic erioceco orduac, gueldicen dire satisfacios beteric, esatearequin or gueldicen da nereacienda.

Paga chaste zorrac, baño oyec duaci infe(rnura)³⁰ pagacera dañu guciec; nire fielac siñestazazu esperacea erioceco orduen pagatuco dutela cembait erederoc, da esperacea bezela ateraco dutela infernutic; baldin badaqui, edo dudacen badu eztuela eguieñen restucioric. Madariquetue da guizona (esaten du Jaingoicoac Geremiasen agotic) confiacen duena beste guizon batean, eta paracen duen vere vesotaco, izanic ar^{aa}nⁿ

26 *corradu* ere izan daiteke. Alde guztietara ezin zehaztu zer esan nahi duen.

27 Lerro bukaera izanic eta papera tolesturik dagoenez, ezin da ziurtatu horrela denik, baina itxura guztia dauka.

28 Hau ere zalantzazkoa lerro amaieran baitago. Hasieran *ite(a)* ('egitea') zelakoan geunden, baina azkenean hortzetakoa baino txistukari frikariaren itxura hartu diogu eta baita zentzu gehiago ere bai. Mugatzailea, dena den, soberan izanen luke: *iz* ('hitz').

29 Azken bi hitz hauek, lehena lerro amaieran eta bigarrena hurrengo lerroaren hasieran eta lehen hizkia belzturik: *ez bati duaci*, seguruenik.

30 Lerro amaieran papera tolesturik.

guiscoa. Ain claro dago testoa, eci eztu esplicacio bearric. Cergatic izanic aide, eta adisque gueilac izala bezala faltaturic dicharen yguzquie, desamparacen dute guizona asqui madariquetue da vici dena, confiaturic besteren baiten, eta anices gueiagio, esaten du Sⁿ Bernardoc ebec baldin badire herederoac, cergatic confiacen du ebetan ileen denac, ez dituenean uzten asegureturistic bere animeren gaucec, da nai izatea atera dezaten araguisco besoequin infernueren ondarrctic; o nire fiela ori da desengaño andia, bada escazagun Jaingoicoari, eta Amassantissimari emanzagun zagumentua atraceco errorre ontatic, eta para gachan ceruco bidean, eta guc (?)³¹ paracen batugu medioac conseguituco dugu Animaren gracie ilzen garenian sacraleco descansu eta glorie Amen.

4.2. Hizkuntza-deskribapena

4.2.1. Fonetika-fonologia

Asimilazio aurrerakaria. /i/ eta /u/ bokal itxiek hurrengo silabako bokal irekiaren itxiera eragiten dute predikuan era sistematikoan, bai hitz barruan, bai hitz amaieran, nola sintagma osatuz jarraian doan *bat* zenbatzaile zehaztuaren kasuan: *rapiñe*, *simonie*, *gauce*, *beguire*, *presencie*, *circunstancie*, *irurec*, *dire*, *beguiretu*, *baite*, *familie*, *materie*, *garie*, *araguie*, *ogui*, *usure*, *munduen*, *becatarie*, *ogui bet*, *gucie*, *egui*, *madariquetue*, *yguzquie*, *animeren*, *uquecearequin*, *infernueren*, *gracie*, *glorie*, *baiten*. Baina, bitan baino ez bada ere: *Animaren* eta *rapiña*.

-a + -(e)n/(e)la > -an/-en eta -ala/-ela. Bokalez amaitzen diren adizkiei -(e)n edo -(e)la menderagailuak eransterakoan, ez da testuan irizpide finkorik antzematen. Hala ere, esaldi konpletiboetako menderagailuarekin, kasu gehienetan -ela atzikia darabil autoreak: *dela*, *duela*, *dutela*, *diotela*, *daudela*, *eztuela*. Baina: *dagoala*, *daguala*. Eta nahasia ere ageri da zehar galderetako edo erlatiboetako -(e)n menderagailua, askoz gehiago badira ere modu estandarizatuan ageri direnak: *duen*, *dena*, *den*, *dauquen*, *duenac*, *duten*, *zaioten*, *dezaqueten*. Baina: *diran*, *dana*.

-a mugatzailearen aurreko /e/ eta /o/ bokalak ez dira ixten, hau da, ez dira disimilatzten /i/ eta /u/ bihurtuz, kasuren batean baino ez bada: *jaquitea*, *grabedadea*, *ebastea*, *arcea*, *iduiquea*, *javearen*, *vorondatearen*, *quencea*, *grabea*, *lebea*, *mirabeari*, *legueac*, *gendeac*, *esperacea*. Baina: *icetie*. Eta atzeko bokal erdikoaren kasuan: *Jaingoicoaren*, *projimoari*, *secretoan*, *distintoac*, *chiquiangoan*, *menosprecioan*, *testoa*. Baina: *daguala*, *andiagua*, *ardua*, *gaiztuago*.

Bokal itxiz amaitzen diren hitzen kasuan, ondoan doan bokal irekia itxi egiten da, baina ez zaio kontsonante epentetikorik eransten, Aranatzan (Erdozia, 2001, 98. or.) bezala: *chiquie*, *materie*, *garie*, *araguie*, *ogui*, *egui*, *yguzquie*, alde batetik. Eta *mandamentuen*, *sagradue*, *instrumentue*, *dañue*, *jaquinsueri*, *munduen*, *isuec*, *madariquetue*, *infernueren*, bestetik, baina *zagumentua*.

31 Gu izenordainak zerbait du erantsirik, baina ezin hizkia denik esan.

Hasierako *e-* bokalaren itxieraren adibideak aurkitzen ditugu: *yguzquie*, *iduquicea*, *iduquicen*, *itea*.

Aferesia. Izen bakarraren kasuan jaso dugu hitzaren hasierako bokalaren erortzea, *zagumentua*. Hala ere, subjuntiboko, aginterako eta ahalerako aditzen kasuan, nagusia eta laguntzailea elkaturik, badira zenbait aferesi kasu laguntzaileari dagokionez: *esanzoque* ('esan diezaioke'), *prestazazu*, *paga chaste* ('bitzate/itzazue'³²), *siñestazazu*, *escazagun*, *emanzagun*. Baina: *atera dezaten*.

Sinkopa. Badira hitzaren barneko bokal baten erortzea erakusten dutenak predikuan: *drecho*, *abrasa* (baina *aberasai* ere bai), *orlaco*, *ontas*, *atraceco* (baina *ateraco*, *atera* ere bai), *ontatic*, *orbat* ('orobat').

Metatesia. Kasu bakarra, baina errepikaturik, ageri zaigu: *probe*, *probeari*.

Bokal-protesia. Predikuan bada jatorrian kontsonante dardarkariarekin hasten diren izenetan gehitutako bokalaren kasuren bat edo beste: *erreal*, *arrazue*, *arrazuescoaren*. Baina badira Aranazko eta Arakil mendebaldeko eguneroko erabileran tradizio gutxiagoko (Erdozia, 2001, 171. or.) beste zenbait adibide, zeinetan ez den bokalik erantsi: *rapiñe*, *restitucioa*, *restitucioen*, *restitucioric*.

/au/ > /ai/ diptongo aldaketa. Kasu bakarra bada ere, predikuan ageri den lau alditan dago modu berean idatzia: *Jaingoicoaren*, *Jaingoicoac* (2), *Jaingoicoari*.

Behin baino ez bada ere, /eu/ > /au/ diptongo irekiera dakar predikuak bezala (Erdozia, 2004b, 490. or.): *aurri*. Altsasun, Urdiainen eta Irañetan ere horrela gertatzen da eta Aranatzan (Erdozia, 2001, 161. or.) ere bai, baina baita hasierako kontsonantearen txandaketa ere: *aurri*.

Ez da Aranatzan (Erdozia, 2001, 79. or.) bezala /a/ > /au/ diptongatzen *handi* izenondoa: *andiagua*, *andienari*.

Bustidura edo palatalizazioa. Bokal itxiaren ondorengo /n/ hortz-hobietako kontsonante sudurkaria sistematikoki ageri da palatalizaturik: *ceñec*, *guiñuquen*, *rapiñe*, *ceñetaco*, *ceñequi*, *eciñen*, *baño*, *beñere*, *siñestazu*, *eguiñen*. Askoz gutxiago dira /l/ alboko hobikariarekin gertatzen direnak eta ez gainera kasu guztietan: *famillie*, *allegatu*³³; baina *ileen* ('hilen', etorkizuneko aspektua) eta *bil*. Aranatzan ohikoa den /t/ hortzetako ahoskabearen palatalizazioa ez da behin ere lekukotzen predikuan: *eguiten*, *badaiteque*, *añaditu*, *conseguituco*...

32 *Paga chaste zorrac*, *baño oyec duaci infe(rnura) pagacera dañu guciac*... Zalantzazkoa hasierako laguntzailea, aditz trinkoaren erreferentzia hartuz gero, nork hirugarren pertsona plurala beharko zuelako. Hiriberriko predikuan (Salaberri & Urritzola, 2008, 278. or.): *ikus zazte* ('ikus ezazue').

33 Urdiainen *ailatu* (Erdozia, 2004, 17. or.).

Errotazismoa. Badira zenbait aztarna predikuan, baina orokorrean esan daiteke egoera nahasia erakusten duela. Behin baino ez da ageri *erraten* eta *esateco*, *esaten*, aldiz, gainerakoetan. Bestela ere, *beste*, *besteric*, *besteren* eta *chiquiangoan* ditugu eta baita *guti*, *anices*, *anicec* eta *asqui* ere bai.

/h/ kontsonantearen testigantza erakusten duen izena dugu predikuan, hitz bera bada ere errepikaturik: *agotic*. Horrelaxe gertatzen da Burundan³⁴ eta baita Aranatzan eta Arakilen ere (Erdozia, 2001, 135. or.).

Ezpainetako kontsonante ahostuna ageri da behin baino gehiagotan hitz lexema bera baliaturik hitzaren hasieran: *becatu*.

/j/ kontsonantearen bilakaera. Hitzaren hasieran [x] dago guztietan: *jaquitea*, *Jaingoicoaren*, *javeare*, *jabea*, *jaquinsueri*, *jaquin*. Hitz barnean, aldiz, gaztelaniako hitzak izanik biak, <g> dugu: *sacrilegio* eta *progimoari*. Ez da x-ren [š] arrastorik.

Kontsonante txistukari afrikatuak. Grafiaren aldetik, predikuan ondorengoak dira baliatzen diren aldaerak: <s> erabiltzen da [tš] hobikari apikaria adierazteko (*ebasi*, *abrasa*, *aberasai*, *jaquinsueri*, *isuec*, *conseguituco*, *descansu*), eta <c> [ts] hobikari bizkarkari ahoskabea adierazteko (*suponicen*, *deicen*, *arcea*, *iduquicen*, *quencea*, *causacen*, *salcen*, *converticen*, *anicec*...; baina: *izuli*, *idazi*, *izala*, *ilzen*). <ch> dugu sa-baiaurreko afrikatu ahoskabearekin (*chiquiac*, *chiquiangoan*).

Frikariei dagokien mailan, [š] erabilia da deklinabideko instrumentalean, Nafarroako hizkera gehienetan ohikoa den moduan (ikusi morfologia atalean, deklinabidean).

Bestela ere, *ez* aditzondoarekin eta aditz nagusiak laguntzailearekin sortutako sandhiak ugari dira: *eciñen*, *esanzoque*, *eztuela*, *escazagun*, *eztu*, *emanzagun*. Salaberrik eta Urritzolak ere (2008, 273. or.) Hiriberriko predikuan aditzondoarekikoak jaso zituzten.

Dardarkari samurraren kasuan, mantendu egiten da era ia sistematikoan, Aranatzan eta Arakil mendebaldean normalean galtzen den inguruneetan (datiboa, edute genitiboa, partitiboa, adlatiboa): *debecaturic*, *Jaingoicoaren*, *besteri* (baina baita ere *probe batei* eta *oficiele batei*), *diran*, *progimoari*, *dañure*, *esquero*, *unituric*, *garenian*... Baina: *aberasai*.

Herskari belare ahostunaren kasuan aurrekoaren kasuan esandakoa errepika daiteke: *allegatu*, *aguincen*, *eguiñen*, *pagatuco*, *augmentaciagatic*... Baina behin gutxienez *nausiec* dugu eta beste behin, transkripzioa zalantzakoa bada ere, *orren contra itea* ('egitea') *abequi*.

34 Ohikoa da antzinako hasperenaren ordez /g/ edo /b/ esatea. Horren lekuko dira Urdiaingo *ago* 'aho', *agotz* 'ahotz', *egun* 'ehun' eta *ubal uhal* (Zuazo, 2010, 67. or.). *Egundu* ('ehundu') ere bai Altsasan (Erdozia, 2006, 40. or.).

4.2.2. Morfologia

4.2.2.1. Deklinabidea

Partitiboa. Aranatzan eta Arakil mendebalean (Erdozia, 2001, 206. or.) bezala, ez du behin ere galtzen prediku osoan dardarkari samurra partitiboaren morfemak: *debecaturic*, *ciertoric*, *besteric*, *beteric*, *unituric*, *obligaturic*, *interesaric*, *prestaturic*, *restitucioric*, *faltaturic*, *confaturic*, *asegureturic*.

Datiboa. Partitiboarekin bezala, datiboren kasuan ere gertatzen dela esan daiteke, datibo singularreko morfemari dagokionez gutxienik: *progimoari*, *zenari*, *andienari*, *javeari*, *mirabeari*, *Jaingoicoari*, *Amasantissimari*. Baina kasu batean gutxienez galdu egiten du: *aberasai*. Bestalde, morfema pluralari dagokionez, predikuan baliaturikoa behin baino ez dago esaterik plurala dela: *avei* ('hauei'). Beste bi kasuetan (*jaquinsueri*, *conciencieri*) plurala zein singularra izan daiteke, azken honen kasuan morfemako bokal irekia aurreko bokal itxiak asimilaturik. Testuinguruak ez du argitzen idazlearen asmoa.

Soziatiboa. Morfemaren amaierako kontsonante sudurkariari dagokionez, egoera nahasia erakusten du predikuak: *nerequin*, *gueienequin*, *uquecearequin*, *pagacearequin*, *esatearequin*, *besoequin*, baina baita *ceñequi*, *condicioarequi* eta *abequi* ere.

Ablatibo eta motibatibo kasuetako morfemaren amaierako herskari belar ahoskabea ez da galtzen predikuan behin ere: *sagratutic*, *ebastetic*, *onengatic*, *prestacetic*, *auman-taciagatic*, *infernutic*.

Instrumentala. Kasu honetan eta eratorritako kasu guztietan, Aranatzan eta Arakilen (Erdozia, 2001, 210.-211. or.) antzera, -s morfema erabiltzen du predikugileak: *ontas*, *satisfacios*, *arraanguiscoa*, *anices*, *araguisco*, *esquero*, *añaditus*.

Izen bizidunetikiko inesiboa. Behin baino ez da ageri deklinabide kasu hau predikuan eta horretan, Aranatzan eta Arakilen (Erdozia, 2004a, 67. or.) baliatzen dena erabili du predikugileak: *besteren baiten*. Salaberrik eta Urritzolak ere (2008, 275. or.), Hiriberriko predikuan horrelakoak jaso zituzten.

4.2.2.2. Erakusle eta zenbatzaile orokorra eta zehaztugabeak

Erakusleak. Absolutibo kasuko hirugarren graduko erakusle singularra, *hura*, Arakil Ekialdeko zenbait testutan ageri den moduan dago pare bat aldiz predikuan: *ore*. Eta plurala, *aiec*. Ergatiboko hirugarren graduko singularra ere, behin gutxienez, nafarrerako hainbat hizkeretan egiten den moduan ageri da: *arrec*. Pluralekoak, kontsonante daramatela ageri dira: *ebetaco* ('haietako'), *abequi* ('hauekin'), *ebetan* ('haietan'), *ebec* ('haiek'). Bestela ere, <y> kontsonantea daramaten ondorengoak daude: *ayei* ('haiei'), *ayec* ('haiek'), *oyec* ('horiek').

Guzi zenbatzaile orokorra. Aranatzan bezala (Erdozia, 2004, 140. or.), hortzetako ahoskaberik gabe ageri da predikuan: *gucie*³⁵, *becatarie oc gucioc*. Azken kasu horretan,

35 Aranatzan bezala, zenbatzailearen amaierako bokala /e/ erdikoa da, bokal itxiaren ordeaz.

gainera, sintagmako izena ere mugaturik ageri da *oc* erakuslea baino, plural hurbilaren morfema dela dirudi.

Zenbatzaile zehaztugabeei dagokienez *anitz* eta *asko*, alde batetik, eta *guti* ageri dira: *anicec*, *anices* eta baita *asco denboraco* (egun³⁶ arruntagoa den ordena aldatu-rik) eta *guti* (hiru alditan).

4.2.2.3. Aditza

Etorkizuneko morfema *-en* da prediku guztian kontsonante sudurkaria edo albokaria amaieran duten aditzen kasuan: *izanen dire*, *izanen da* (bi aldiz), *eztuela eguiñen*, *ileen* ('hilen') *denac*. Bestela *-ko*: *conseguituco dugu*, *pagatuco dutela*.

Behar aditza hiru modutan ageri da: *bear* (hiru aldiz), *ber* eta *biar* (aldi bana). Bigarrena, ohikoa da Etxarri-Aranatzen.

Aginterako, subjuntiboko eta baita ahalerako adizki bakarren bat ere sandhian ageri dira: *esanzoque* ('esan diezaioke'), *prestazazu* ('presta ezazu'), *siñestazazu* ('sinistu ezazu'), *escazagun* ('eska diezaiogun'), *emanzagun* ('eman diezaiogun'). Badira beste-lakoak ere: *nai ez guiñuquen*, *quendu zaguten* ('diezaguten'), *badaiteque*, *saldu ez de-zaqueten*, *paga chaste* ('paga bitzate/itzazue'), *para gachan* ('para gaitzan'), *jaquin veza*. Ikusten denez, aditz-modu horietan ez du partizipioa erabiltzen aditz oina baizik, *saldu* eta *kendu* aditzen kasuan izan ezik.

Bost aditz trinko baino ez dira ageri predikuan: *dago*, *daude*, *badaqui*, *dauquen* eta *duaci* ('doaz'). Azken honen kasuan, *-zi* pluralgilea, Burundan eta ekialdeko hizkeretan bezala (Zuazo, 2010, 213.-214. or.).

Nor-nori eran, erro ezberdineko adizkiak ikus daitezke: *ebasi balaquio* ('ebatsi balitzaio'), *eguiten bazaio*, *seguicen zaionean*, *zaioten* ('zaien'). Aranatzan eta Arakil mendebaldean erruz darabilte bertakoek *-ki*- erroa (Erdozia, 2001, 253. or.): *ostu balakiyo* ('ostu balitzaio'), *etor dakit* ('etorri zait')...

Indikatiboan, laguntzaileen artean ondorengo adizkiak ditugu, eraren arabera bereizirik:

- Iragangaitzak: *da*, *dela*, *dire*, *diran*, *dena/dana*, *den*, *derelaric*, *garenian*...
- Iragankorrak: *du*, *duen*, *duela*, *dudena*, *dut*, *dutenean*, *duzu*, *zuen*, *badute*, *dute-la*, *dugu*, *diot*, *diotela*, *diona*, *ciona*...

36 Goenagak (1980, 82. or.) esaten du idazle zaharrek aurretik jartzen bazuten ere, egun gehienbat izenaren multzoaren eskubitara agertzen dela.

4.2.2.4. Bestelakoak

Erdal *-ción* atzizkia daramaten hitzak *-zio* atzizkiarekin ageri dira predikuan, ohikoa den moduan: *restitucio, condicio, condenacio, satisfacio, esplicacio*. Aranatzan eta Arakil mendebalean (Erdozia, 2001, 85. or.), <y> kontsonante epentetikoarekin ageri da: *kondiziyo, esplikaziyo...*

Erdal *razón* izena, predikuan bi aldiz ageri da *-zue* amaierarekin Irañetan (Erdozia, 2004a, 35. or.) eta Hiriberriko predikuan bezala (Salaberri & Urrizola, 2008, 282. or.): *arrazue onengatic, borondate arrazuescoaren*.

4.2.3. Sintaxia

Esaldi konposatu elkartuetan, ondorengo juntagailuak erabili zituen predikugileak: *eta, baite ere, edo, baño, baicic eta orbat* ('orobat').

Ugari dira, bestalde, mendeko esaldi konposatu mota ezberdinak prediku guztian eta horietako asko eta asko errepikatuak egituraren aldetik. Horrexegatik, nabarmenenak eta estiloaren aldetik adierazgarrienak jasoko ditut ondorengo lerrootan.

- Nominalizazioak. Aditza izen bihurturik ageri da maiz predikuan: *itea, iduquicea, ebastea, quencea, esperacea, arcea...*
- Erlatibozkoak. Predikuan ditugun erlatibozko esaldi ugari *zein* galdetzailea baliaturik ageri dira: *ceñec erraten duen, cein diren, ceñec ez dauquen besteric, ceñequi erabazi bear duen, cierto dena da, ebasten duenac guti, ebasten dena*.
- Helburuzkoak. Lehen-lehenik, *-(r)en -t(z)era* egitura, hau da edute genitiboa baliaturik absolutiboaren orde, duen esaldi bati erreparatuko diogu: *eta daude obligaturic restitucioen eguitera*. Bestela, egun ohikoak diren menderagailuak erabiltzen dira predikuan zehar: *icusteco, daudela obligaturic eguitera... edo condenacera, da nai izatea atera dezaten*.
- Konpletiboak edo osagarri-funtzioa egiten dutenak. Hizkera gehienetan gertatzen den bezala, *-ela* menderagailua baliatzen du predikugileak: *eguiten dela, dagoela debeatadic, uste dute complicen dutela...*
- Baldintzazkok. *Ba-* eta *baldin ba-* dira gehien ageri direnak eta bitan baino ez *-z gero*: *eta gu paracen batugu medioac conseguituco dugu, baldin ebasten dena... bada, eta baldin bada gauce chiquie, baldin bada gauce grabea, allegatu esquero lau errealetara, allegatu esquero materie grabera...*
- Denborazkoak. Oso hedatuak diren menderagailuez gain, *-elarik* ere baliatu du predikugileak: *ebastean, ebasten dutenean, ilzen garenian, allegacen dereladic, ez pagacearequin dezaqueteladic...*
- Konparaziozkoak. *-(e)n baino ... -ago* da behin baino gehiagotan erabilitako menderagailua: *ematen zaioten soldata baño gueiago, aguincen duten baño chiquiagoa*.

- Kausazkoak. Galdetzaileak dira gehien erabiliak eta batzuetan horrez gain aditzak *-(e)n* morfema edo menderagailua darama: *cergatic iduquicen duten, cergatic probe baten dañu andigua eguiten zaio, ceren uste duten, cergatic nausiec esanzoque, cergatic den usure...*
- Kontsekutiboak. Bat baino ez bada ere, *hain ... ezi ... (aditza)* egitura darama: *ain klaro dago testoa, eci eztu esplicacio bearric.*
- Moduzkoak. Bi esaldi aipagarri aukeratu ditut: *nola den quencea ogui bet probe batei, da esperacea bezela ateraco dutela infermutic.*

4.2.4. Lexikoa

Ez ditugu atal honetan predikuan ageri diren hitz guztiak jasoko, aipagarri iruditu zaizkigunak baizik, nahiz eta horietako gutxi batzuk baino ez izan testua dialektologiaren aldetik nabarmentzen duten ezaugarriak, ondorioetan azaltzen dugun bezala.

<i>abras</i>	Aberats, ondasun edo/eta diru asko duena. Sinkopaturik dakar predikuak.
<i>adisquide</i>	‘Adiskide, lagun’. Burundan eta Aranatzan (Erdozia, 2004a, 10. or.) aurreko kontsonante hortzetakoa eroririk darabilte.
<i>ago</i>	‘Aho’.
<i>aide</i>	‘Ahaide, familiako’. Etxarri Aranatzan eta Lizarragabengon ere horrela (Erdozia, 2004a, 7. or.).
<i>aniz</i>	‘Anitz, asko’.
<i>aragi</i>	‘Haragi, okela’. Aranatzan eta Arakilen bezala (Erdozia, 2004a, 28. or.).
<i>ardo</i>	‘Ardo, arno (Ipar.)’.
<i>asco</i>	Ez da hitz osoa agertzen predikuan lerroaren bukaeran dagoelako eta azken hizkia falta zaio paperaren makurtzea dela eta.
<i>asqui</i>	‘Aski, nahiko’.
<i>atra</i>	‘Atera’. Bi modutara ageri da, sinkopatua eta oso-osorik.
<i>becatu</i>	Behin eta berriz ageri da ezpainenekin ahostunarekin hasieran.
<i>bezela</i>	‘Bezala’. Aranazko eta Arakilgo zenbait herritan ere bai horrela (Erdozia, 2004a, 73. or.).

<i>cierto</i>	‘Ziur’. Adjektibo-moduan eta <i>izan</i> aditzarekin erabilia.
<i>claro</i>	‘Argi’ (aditzondoa).
<i>cometitu</i>	‘Egin’.
<i>confiatu</i>	‘Fidatu’.
<i>Chafon</i>	‘Txanpon’ izan daiteke.
<i>chiqui</i>	‘Txiki, ttipi’.
<i>dañu</i>	‘Kalte’.
<i>desonrra</i>	‘Desohore, ohorearen galera’.
<i>drecho</i>	‘Zuzenbide’. Sinkopaturik ageri da predikuan.
<i>dudatu</i>	‘Zalantza egin’.
<i>ebasi</i>	‘Ostu, lapurtu’. Arakil ekialdean erabiltzen zuten.
<i>erabaci</i>	‘Irabazi’.
<i>erioceko ordua</i>	‘Hiltzeko momentua’.
<i>erran, esan</i>	Esan. Hiriberriko predikuan ere <i>esan</i> (Salaberri & Urrizola, 2008, 283. or.).
<i>esperatu</i>	‘Espero izan, itxaron’.
<i>esplicatu</i>	‘Azaldu’.
<i>guci</i>	‘Guzti, guzi’.
<i>guti</i>	‘Gutxi’.
<i>hacienda</i>	‘Azienda, ganadua, abereak’.
<i>iduqui</i>	‘Eduki’. Uhartre-Arakilen <i>idugi</i> , Urritzolan <i>iruki</i> , Irañetan <i>idiittu</i> eta Arbizun <i>irui</i> (Erdozia, 2004a, 291. or.).
<i>infernu</i>	‘Su-leize’.
<i>izuli</i>	‘Itzuli’.

<i>Jaingoiko</i>	‘Jaungoiko, Jainko’.
<i>jaquinsu</i>	‘Jakintsu’.
<i>madaricatu</i>	‘Madarikatu’.
<i>manatu/aguindu</i>	‘Agindu’. Bi modu horietan ageri da.
<i>medianoqui</i>	‘Erdi’, gaztelaniako <i>medianamente</i> aditzondoan adierazteko: ... <i>eta beste medianoqui aberasai ebastea...</i>
<i>nause</i>	‘Nagusi’. Kontsonante herskaria eroririk darama predikuan eta erdiko bokala jarri diot amaieran, Aranatzan bezala (Erdozia, 2004a, 218. or.), mugatzailea eransterakoan disimilaturik ageri delako: <i>nausie</i> . Dokumentuan <i>nausiec esanzoque</i> . Eta gauza bera gertatzen da <i>guze</i> zenbatzaile orokorraren kasuan (Erdozia, 2004a, 140. or.), honek ere berdin jokatzen duelako: <i>guze</i> + <i>-a</i> > <i>guzie</i> . Baina ez <i>eguzki</i> izenaren kasuan, honek bokal itxia baitarama amaieran eta ez erdikoa.
<i>nirabe</i>	‘Nerabe’. ‘Zerbitzari’, ‘neskame’, ‘morroi’ zentzuan darabil.
<i>ondar</i>	‘Hondar’.
<i>orbat</i>	‘Orobat’, bi aldiz ageri da sinkopaturik.
<i>pagatu</i>	‘Ordaindu’. Aranatzan eta Arakil mendebaldean bezala (Erdozia, 2004a, 241. or.).
<i>paratu</i>	‘Jarri, ezarri, prestatu’. Aranatzan eta Arakilen ere bai (Erdozia, 2004a, 241. or.).
<i>probe</i>	‘Txiro, pobre’. Metatesiz.
<i>progimo</i>	‘Lagun hurkoa’.
<i>quendu</i>	‘Kendu’. Aranatzan eta Arakil mendebaldean <i>gendu/jendu</i> , baina Irañetan eta Burundan <i>kendu</i> (Erdozia, 2004a, 161. or.).
<i>sacraleco</i>	‘Sakratu’.
<i>seguitu</i>	‘Jarraitu’.
<i>simonie</i>	Honela dator definiturik RAEn: <i>simonía 1. f. Rel. Compra o venta deliberada de cosas espirituales, como los sacramentos y sacramentales, o temporales inseparablemente anejas a las espirituales, como las prebendas y beneficios eclesiásticos.</i>

<i>sinestatu</i>	‘Sinistu, sinetsi’. Aranatzen eta Arakil mendebaldean <i>siñistetu</i> (Erdozia, 2004a, 265. or.). Hiriberriko predikuan ere horrela (Salaberri & Urrizola, 284. or.).
<i>solo</i>	‘Soilik, bakarrik’, aditzondo moduan dago erabilia behin. Aranzten aurkaritzako juntagailu moduan ere erabiltzen da (Erdozia, 2001, 304. or.). Hiriberriko predikuan <i>solamente</i> (Salaberri & Urrizola, 2008, 284. or.).
<i>suponitu</i>	‘Eman, pentsatu’.
<i>vesotaco</i>	Norbait bere aitabitxi edo amabitxiarendako.
<i>yguzqui</i>	‘Eguzki’. Aranatzten eta Arakil mendebaldean <i>iruzki</i> . (Erdozia, 2004a, 151. or.).
<i>zor</i>	‘Itzuli beharrekoa’.

5. JARRAIBIDEA (JOSEPH MIGUEL DE EYARALAR APEZARENA, SEGURUENIK)

5.1. Transkripzioa

Ordena celebraceco Matrimonio Sant^a

Jaquin bear dute, ta consideratu, eldu dirala celebracera Matrimonio Sandua, au da elicenco sacramentuatic bat, Jangoicoac paratu zuena, herederoac izateco; beronzat eta guero Jangoicoarenzat: bar dute baquean bici, obedicen diola emazteac: bere senarrari: sacramentu onec, bear den recibitu ezquero ematen du gracia, ta ausilioac, Matrimonio cargac, ta obligacioac sufriceco: au bada bear den vecela celebra dadien aguincen ^{dizutet} diotet manifesta dezatela, oien ^{zuen} artean arquicen bada impedimenturembat; ym-pedimentua izanen da baldin zuen vian artean bada, aidetasunic, edo esponsaze, edo izescu iño^{ri} emanic, orbat baldin eguin badute boto castidade edo religioen batean religioso edo religiosa sarcecoric: avce edo veste edoz^{zer}ein, impedimenturic artean baldin bada edo arquicen bada esan bezate edo manifesta bezate: Presenteco Jaunaren arrear aguincen diotet manifestazatela oien artean arquizen baldin bada impedimenturen bat: orbat aguincen diotet edo requiricen diotet presente zauten guzioi asi eta iru aldiz esaten diotet manifesta dezatela libremente :

Andre fulana nai du presenteco Jaun fulano Jaunau zere esposo legitimo ta senarretaco presenteco izaquin, Eliza ama Santa Chatolica Apostolica Erromacoac aguincen duen bezala R. Bai Jauna? Entregacen edo otorgacen zara esposa ta emaztetaco? R. Bai Jauna. Recibicen duzu zuc esposo ta senarretaco. R. Bai Jauna!

Pregunta al esposo

Berorrec ^{zuc} fulano Jaun fulano Jaune nai du presenteco fulanau ^{zere} Andreau ^{eta} esposa legitima, ta emaztetaco, presenteco izaquin, Eliza ama Santa Chatolica Erromacoac aguincen duen vezala? R. Bai Jauna! Recibicen du vere ^{cere} esposa, legitima ta emaztetaco? R. Bai Jauna.

El nobio pone la mano sobre la mano de la nobia y se dice la forma = Et ego ex parte Dei omnipotentis et Apostolorum con lo que se sigue y luego el Asperges.

5.2. Hizkuntza-deskribapena

Lehen predikua baino askoz ere laburragoa dugu bigarren eskuizkribu hau eta bertan Kristau Elizaren araberrako ezkontzarako ezinbestekoak diren jarraibideak azaltzen dira.

5.2.1. Fonetika-fonologia

Asimilazio aurrerakaria. Ezin da, ezta gutxiago ere, esan era sistematikoan gertatzen denik bigarren prediku honetan, ez baitago ia gertaera fonetiko honen adibiderik bertan. Bi kasu baino ez eta horietako bakoitza behin bakarrik, *eliceco* eta *Jaune*, baina baita izen berberak asimilatu gabe ere: *Eliza ama Santa* eta *Jauna* behin baino gehiagotan.

-a + -(e)n/(e)la > -an/-en eta *-alal-ela*. Biak ala biak ageri dira, baina guztira hiru kasutan: *eldu dirala*, *manifesta dezatela*, *manifestazatela*. Hirurak ikusita, esan daiteke *-la* dela, erdiko bokalik gabe, horietan erantsitako morfema. Bestela *-en*: *den* eta *duen* kasu guztietan.

-a mugatzailearen aurreko */e/* eta */o/* bokalak ez dira ixten, hau da, ez dira disimilatzen eta */u/* bokalak ez du kontsonante epentetikorik hartzen: *emazteac*, *Jangoicoac*, *herederoac*, *ausilioac*, *obligacioac*, *Erromacoac*, *Sandua*, *impedimentua*.

Sinkopa. Badira hitzaren barneko bokala edo silaba baten erortzea erakusten dutenak predikuan: *orbat* ('orobat'), *zauten* ('zaudeten'), *prestazatela*³⁷ ('presta dezatela').

Bokal-protesia. Predikuan bada jatorrian kontsonante dardarkariarekin hasten diren izenetan gehitutako bokalaren kasu bat: *Erromacoac* (bi aldiz). Baina badira beste zenbait adibide, zeintzuetan ez den bokalik erantsi: *recibitu*, *religoren*, *religioso*, *religiosa*, *requiricen*, *recibicen*.

/au/ > /a/ monoptongazioa. Badira zenbait kasu predikuan, zeintzuetan diptongoaren monoptongazioa gertatzen den: *Jangoico* (Jaungoiko) bi aldiz, *arquicen* (aurkitzen) beste bi aldiz eta *arrear* (aurrear). Ez dakigu azken kasu hau aipatu monoptongazioaren ondorio edo errata den.

37 Sinkopa baino, aferesia kontsidera daiteke, berez sandhia ez, baizik eta aditz nagusia eta laguntzailea bereizirik joan beharko lirarteke eta.

Bustidura edo palatalizazioa. Behin baino ez da bokal itxiaren ondorengo /n/ ageri palatalizaturik: *iñori*. Hitz amaieran eta ondoren kontsonantea daramanean ez da palatalizatzen: *aguincen*, *baldin*, *izaquin*.

Errotazismoa. Ez da errotazismoaren arrastorik eta *-st-* kontsonante taldea daraman hitz bakarra ageri da: *veste*.

Ezpainetako ahostuna ageri da behin hitz hasieran: *baque*.

/j/ kontsonantearen bilakaera. Predikuaren kasuan bezalaxe gertatzen da jarraibide honetan, hitzaren hasieran [x] dago guztietan: *Jangoico*, *Jauna*. Hitz barnean, aldiz, gaztelaniako arau ortografikoak jarraituz, <g> *religioso*, *legitima*.

Kontsonante txistukari afrikatuei dagokienez, soilik [ts] dakar testuak <c> baliaturik horretarako: *arquicen*, *sufriceko*...

Frikariei dagokien mailan, <s> erabilia da deklinabideko instrumentalean, testu honetan behin baino ez bada ere: *aldis*.

Sandhia: *impedimenturembat*. Aipagarria, ezen sandhia ez balitz burutu, lehen osagaia <n> sudurkariarekin izanen zen amaieran, baina bigarren osagaia kontsonante ezpainetako ahostunarekin hasten denez, gaztelaniaren arau ortografikoei men eginez, <m> bihurtu du autoreak. Beherago, sandhirik gabe ageri da sintagma bera, *impedimenturen bat*, sudurkariak aldaketarik jasan gabe.

Dardarkari samurraren kasuan, mantendu egiten da era sistematikoan bigarren testu honetan: *senarrari*, *Jangoicoarentzat*, *guero*, *impedimenturic*, *impedimenturen*, *cere*, *zara*, *vere*...

5.2.2. Morfologia

5.2.2.1. Deklinabidea

Partitiboa. Behin baino agertzen ez bada ere, ez du galtzen dardarkari samurra partitiboaren morfemak: *impedimenturic*. Aranatzan eta Arakil mendebaldean (Erdozia, 2001, 206. or.) aipatu kontsonantea galdu egiten da.

Datiboa. Kasu honetan ere ez du dardarkaririk galtzen singularrean: *senarrari*, *jau-nari*. Plural hurbileko forma ere ageri da: *guzioi*.

Edute-genitiboa. Kasu bakarra bada ere, aipatu behar da *-en* pluraleko morfema beharrean *-an* erabili duela jarraibidearen egileak, hurrengo puntukoan gertatzen denaren antzera: *zuen vian artean*.

Ablatiboko morfemaren amaierako herskari belare ahoskabea ez da galtzen jarraibidean dagoen adibide bakarrean. Pluraleko forma da eta *-atatic* morfema erabili du: *sacramentuatic*.

Instrumentala. -s morfema erabiltzen du bertan ageri den kasu bakarrean: *aldis*.

Destinatiboa. Bi kasu baino ez dira ageri testuan eta bietan *-arentzat* morfema dago, Sakanako hizkeretan (Burundan, Aranatzan eta Arakilen) (Erdozia, 2001, 212. or., 2006, 53. or.) ohikoa den *-arendako* morfemaren ordez: *Jangoicoarentzat*, *beronzat*. Hiriberriko predikuan Sakanako hizkeren modura (Salaberri & Urritzola, 2008, 276. or.).

Prolatiboa. Autoreak darabilen morfema *-tako* da testuan, Sakanako hizkeretan ohikoa den bezala (Erdozia, 2001, 214. or., 2006, 53. or.), *-tzat* beharrean: *senarretaco*, *emaztetaco*.

5.2.2.2. Aditza

Behar izan aditza bi modutan ageri da: *bear* (hiru aldiz) eta *bar* (behin baino ez).

Aranazko eta Arakilgo euskal hizkeretan (Erdozia, 2001, 274. or., 2004b, 499. or.) ohikoa den moduan, ez darabil *etorri* aditza era trinkoan eta horren ordez, *heldu izan* aditza dakar behin: *eldu dirala*.

Nafarroako euskal hizkera gehienetan ohikoa den moduan, etorkizuneko aspektua burutzeko *-en* eta *-ko* morfemak baliatzen dira kontsonante sudurkariz amaitzen diren aditzen kasuan eta testu honetan lehenaren adibide bakarra dago soilik: *izanen*.

Pluraleko bigarren eta hirugarren pertsonetan *-te* erabiltzen da kasu guztietan Arakil ekialdeko zenbait hizkeretan (Erdozia, 2004b, 499.-500. or.; Yrizar, 1991) bezala: *dio-tet* ('diet'), *dizutet* ('dizuet'), *zauten* ('zaudeten'), *bezate*.

Aginterako, subjuntiboko eta baita ahalerako adizkiren bat ageri da: *celebra dadien*, *manifesta dezatela*, *esan bezate*. Ikusten denez, aditz modu horietan aditz oina baliatzen du eta ez partizipioa.

Aditz trinko bakarra ageri da predikuan sinkopaturik: *zauten* ('zaudeten').

Indikatiboan, laguntzaileen artean ondorengo adizkiak ditugu eraren arabera bereizirik:

- Iragangaitzak: *da*, *den*, *zara*, *dirala*.
- Iragankorrak: *du*, *dute*, *duzu*, *zuena*, *diola*, *diotet*, *dizutet*.

5.2.3. Sintaxia

Testu honetan, aurrekoaren antzera, esaldi konposatu elkartuetan, ondorengo junta-gailuak erabili zituen autoreak: *eta*, *edo* eta *orbat* ('orobat')...

Ugari dira, bestalde, mendeko esaldi konposatu mota ezberdinak prediku guztian eta horietako asko eta asko errepikatuak egituraren aldetik. Horrexegatik, nabarmenenak eta estiloaren aldetik adierazgarrienak jasoko ditut ondorengo lerrootan.

- Nominalizazioak. Ez da testu osoan nominalizazio bat bakarra baizik: *esponsace*.
- Erlatibozkoak. Kasu honetan ere bakarra da erlatibozkoa: *Jaungoicoac paratu zuena*.
- Helburuzkoak. Hurrengo menderagailuak ageri zaizkigu testuan: *celebracera, izateco, sufriceco, religioso edo religiosa sarcecoric, celebra dadien*.
- Konpletiboak edo osagarri funtzioa egiten dutenak. Hizkera gehienetan bezala, *-(e)la* menderagailua ageri da: *eldu dirala, obeditzen diola, manifesta dezatela...*
- Baldintzazkoak. Aurreko testuan bezala, *ba-* eta *baldin ba-* dira gehien ageri direnak eta behin baino ez *-z gero*: *recibitu ezquero, arquicen bada, baldin zuen bian artean bada, egin badute boto...*
- Moduzkoak. Hiru modu ezberdinetan datoz moduzko esaldiak eta bigarrenean morfemak kontsonante sudurkaria erantsirik darama amaieran: *zuen bian artean bada ... sponsace edo izescu iñori emanic, presenteco izaquin, bear den vecela, aguincen duen vezala*.

5.2.4. Lexikoa

Predikuaren kasuan esan dugun moduan, testua dialektologiaren aldetik nabarmen-tzen duten ezaugarriak jasotzen saiatu gara, testuaren beraren luzerak bereziki, horretarako aukera gutxi uzten dituela jakinik.

<i>aguindu</i>	‘Manatu, agindu’.
<i>aidetasun</i>	‘Ahaidetasun’.
<i>arquitu</i>	‘Aurkitu’. Diptongoaren monoptongazioa dakar testuan.
<i>arrear</i>	Seguruenik errata dugu, ‘aurrean’.
<i>baque</i>	‘Bake’. Behin baino ez da ageri.
<i>berori</i>	Ergatiboan ageri da testuan, <i>berorrec</i> .
<i>bezela / bezala</i>	Biak ageri dira jarraibidean.
<i>eldu izan</i>	‘Etorri’. Nafarrerako hainbat hizkeretan bezala, Aranatzan eta Arakilen, esate baterako, ez ordea Burundan (Erdozia, 2006, 77. or.).
<i>emazte</i>	‘Emazte’. Kasu honetan ez du erabili <i>esposa</i> , baina beherago <i>esponsatu</i> .

<i>entregatu</i>	‘Eman’.
<i>esponsatu</i>	‘Ezkondu’.
<i>guzi</i>	‘Guzti’.
<i>izescu eman</i>	‘Hitza eman’.
<i>Jangoiko</i>	‘Jainko, Jaungoiko’.
<i>libremente</i>	‘Askatasunez’.
<i>manifestatu</i>	‘Jakinarazi’.
<i>obeditu</i>	‘Men egin’.
<i>orbat</i>	‘Orobat’. Predikuan ere bai.
<i>paratu</i>	‘Jarri, ezarri, prestatu’. Predikuan ere bai. Hiriberriko predikuan ere bai (Salaberri & Urritzola, 2008, 284. or.).
<i>presente egon</i>	‘Bertan egon’.
<i>recibitu</i>	‘Jaso’.
<i>requiritu</i>	‘Eskatu’.
<i>senar / esposo</i>	Biak daude erabiliak.
<i>sufritu</i>	‘Jasan, pairatu’.

6. KOPLA TXIKIA EDO ERLIJIO-BERTSOA

6.1. Transkripzioa

Erljio-balada edo bertso baten aurrean egon gaitezke, paperera ekarririk. Eraman eta irakurtzeko gonbita egin zuen latinez amaieran autoreak. Kardaberazek eta Lizarragak bezala, baina bistan da ez zuela haien mailakorik lortu, Egiarretako apezak ere erlijio bertso edo koplak hau ondu zuen, nonbait, kristau-ikasbide gisa.

Jarraian, zutabeka irakurtzeko, zortzi ahapaldietako bertsoak neurtu eta errimari erreparatu diogu. Silaba-kopurua adierazten duen zenbakia etzanez jarri dugu bitan, aipatu silaba-kopurua bortxatua dela adierazteko.

Becatuaren mendi illunean	8-	Penitencia eguin bear du	8-
Zabilzana galduric	7A	Pecatuaz munduan	7A
Jesus dator zuregana	8-	Nay ez duenac penatu	8-
Arzai on vat eguiñic	7A	Condenatuen ertean	7A
Ardi galduaren vila	8-	Graciaren gloriaren	8-
Etorri zan zerutic	7A	Non dituzu ondasunach	7A
Zure billa bialcen gaitu	8-	Pensazazu cer eguin duten	8-
Zu converticeagatic	7A	Zure ariman pecatuac	7A
Jesusec deicen zaitu	8-	Demonioaren ichura	8-
Ceruco zucen bidetic	8A	Atu dezu zure gan	7A
Adi izazu arren izac	8-	Becatuac izuli zaitu	8-
Gal ezaitecen gotic	7A	Jangoicoaren esaitan	7A
Atoz bada miserirera	8-	Yll bear degula gucioc	8-
Non nai dizun itz eguiñ	7A	Easaten digu fedec	7A
Bear dezuna salvaceco	8-	Oraiñ ibilli dizagun	8-
Jaquin cer eguiñ.	7A	Ceruco videac.	6A

Tolle et lege hic p^a 189 ('Eraman eta irakurri hau')

6.2. Hizkuntza-deskribapena

Ez du metrika oso zehatza betetzen estrofa guztietan, baina bai oso antzekoa, «lizentzia» metriko guztiak baliaturik, transkripzioan ikus daitekeen moduan. Errima eta estrofen bertso-kopurua betetzen da zortzi estrofetan hutsik gabe. 7 -, 6 A, 7 -, 6 A izanen genuke koplak txikiaren neurria eta errimaren formulazioa eta bistan da ez dela hori betetzen Egiarretako erlijio-bertso honetan.

6.2.1. Fonetika-fonologia

Autoreak nahaste zenbait izan zuen bai bokalismoan, bai kontsonantismoan, oinarri bereko hitzak modu ezberdinetan ematen baititu eskuizkribuan, jarraian ikusiko dugun moduan. Horiek horrela, bestalde, esan daiteke garaiko hizkera jasoan dagoela idatzita aipatu erlijio-balada.

Ez da asimilazio aurrerakaririk ageri testuan: *ariman*, *munduan*, *vila*, *billa*, *bialcen*, *zabilzana*. Bai, ordea, kasu bakarrean behintzat *a-e > e-e*: *ertean*.

-a mugatzailearen aurreko /e/ eta /o/ bokalak ez dira ixten, hau da, ez dira disimilazten eta /u/ bokalak ez du kontsonante epentetikoa hartzen: *becatua*, *galduaren*, *Demonioaren*, *Jangoicoaren*, *fedec*, *videac*.

Etxarri Aranatzen eta Ergoienan gertatzen den moduan (Erdozia, 2001, 250. or.), erdi itxia den bokala irekirik agertzen da indikatiboko nor erako eta iraganeko hirugarren pertsonan: *zan*.

Bustidura edo palatalizazioa. Kontsonante albokaria eta sudurkaria maiz ageri dira palatalizaturik bokal itxiaren ondoren, baina zenbait kasutan hitza bera palatalizatu gabe ageri da: *illun, billa, ibilli, yll, eguiñ, oraiñ*, baina *vila, jaquin, eguin*. Hortzetako ahoskabea ez da ageri palatalizaturik behin ere: *zaitu, gaitu*.

/j/ kontsonantea. Beste bi testuen kasuan bezalaxe gertatzen da honetan ere, hitzaren hasieran [x] dago guztietan: *Jangoicoaren, Jesus, Jesusec, jaquin*.

Kontsonante txistukari afrikatuak. [ts] adierazteko, <c> eta <z> baliatu dira eta [tʃ] adierazteko, berriz, <s>: *converticeagatic, zabilzana, arzai, bialcen, deicen, pensazazu, esaitan...*

<r> dardarkari samurra ez da galtzen bokalen artean: *galduaren, graciaren, gloria-ren, Jangoicoaren, zuregan, galduric, zuregan...*

Hasierako ezpainbiko kontsonante ahostun eta ahoskabea bata zein bestea darabiltza autoreak: *becatua, becatuac, pecatuaz, pecatuac*.

6.2.2. Morfologia

6.2.2.1. Deklinabidea

Ergatiboa. Modu berean ageri da singularrean eta pluralean: *becatuac izuli zaitu, zer eguin duten zure ariman pecatuac*.

Partitiboa. Behin baino agertzen ez bada ere, ez du galtzen loturazko dardarkari samurra: *galduric*. Aranatzen eta Arakil mendebaldean *galduik*.

Aurrekoan bezalaxe gertatzen da edute-genitiboan: *galduaren, graciaren, gloria-ren, Demonioaren, Jangoicoaren*.

Ablatiboko eta motibatiboko morfemen amaierako herskari belare ahoskabea ez du galtzen erlijio-baladan dauden adibideetan: *zerutic, bidetic, gotic, converticeagatic*.

Inesiboa. Izen bizidunekikoa, zein bizigabeekikoa ageri da testuan, baina lehenaren kasuan ez Aranatzen eta Arakil mendebaldean (Erdozia, 2004a, 67. or.) bezala espero zitekeen *-(e)n baitan*, *-gan* baizik: *zuregan, ariman, munduan*. Adlatiboko izen bizidunekikoa ere, inesiboaren parekoa: *zuregana*. Salaberrik eta Urritzolak (2008, 275. or.), Hiriberriko predikuan Aranatzen eta Arakil mendebaldekoak bezalakoak jaso zituzten.

6.2.2.2. Aditza

Behar izan aditza modu bakarrean ageri da hiru alditan eta hiruretan hartu dut silaba bakarrekotako, balizko metrikaren mesedetan, Aranatzen eta Arakil mendebalean ahozkoan *b(i)er* burutzen delako (Erdozia, 2001, 90. or.): *bear*.

Aginterako, subjuntiboko eta baita ahalerako adizkiren bat ageri da: *jaquin zazun, pensa zazu, gal ezaitecen, adi izazu*. Baina: *ibilli ditzagun*.

Aditz trinkoak ere ageri dira: *dator, atoz, zabilzana*.

Indikatiboan, laguntzaileen artean ondorengo adizkiak ditugu eraren arabera bereizirik:

- Aditz iragangaitzak: *bada, etorri zan*.
- Aditz iragankorrak: *du, dituzu, duten, zaitu, gaitu, dizun, digu, dezu, dezuna, degula*. Azken hiru adizki hauek, *-e-* erroa daramatenak, egun soilik Urdiainen, Lizarragan eta Etxarri-Aranatzen (honetan bakarrik *det* ere bai, cf. Erdozia, 2001, 47. or.) erabiltzen dituzte Sakanan.

6.2.3. *Sintaxia*

Esaldien atalarekin hasi aurretik, egun zenbaitek egiten duenaren antzera, gaztelaniaren eraginez orduan ere, gure ustean behintzat, *zer itzuli* ('bihurtu') beharrean *zertan itzuli* ('bihurtu') erabili du autoreak: *Becatuac izuli zaitu Jangoicoaren esaitan*. ('Bekatuak bihurtu zaitu Jaungoikoaren etsai').

OEHK dio honela erabiltzen zela XIX. mendearen hasiera bitartean: «itzuli. 7. (L, S, Sal ap. A), itxuli, utzuli. Convertir(se), transformar(se). Tr. Hasta principios del s. XIX suele aparecer con complemento en caso inesivo o alativo; a partir de esta época la tendencia es usarlo con caso absoluto».

Hala izanik ere, iruditzen zaigu gaztelaniaren eragina izanen zutela inesibo kasuan erabiltzen zutenek orduan idazterakoan, ezen ez dugu ahaztu behar erdaraz zirela alfabetatuak haiek guztiak. Guk XX. mende hasierako hitzun ez alfabetatuei beti entzuten genien absolutibo mugagabeen Aranatzen eta Arakil mendebaldean gutxienez: *Eta utse ardo biyurtu ziyān* ('Eta ura ardo bihurtu zian'). *Ordus kios, betiko, etsei biyurtu zikieguban* ('Orduz gero, betiko, etsai bihurtu zitzaiguan'). Eta bistan da horiek aurrekoengandik ikasia izanen zutela aipatu erabilera. Alde guztietara, erlijio-bertsoa idazterakoan osagarria inesibo kasuan erabili izanak, autorea asko jota XIX. mende hasierakoa izanen zela azpimarratzera datorkigu, ez beranduagokoa.

Hitz neurtuen bidezko idatzietan, bestalde, elipsi ugari egiten dira eta horietako batzuk juntagailuak izaten dira. Ez da erlijio-balada honetan bat bera ere ageri.

- Erlatibozkoak. *Becatuaren mundu illunean zabilzana, bear dezuna, nay ez due-nac penatu*.
- Konpletiboak edo osagarri funtzioa egiten dutenak. *Yll bear degula guzioc*.
- Moduzkoak. *...zabilzana galduric, arzai on bat eguiñic*.
- Helburukoak. *Zu converticeagatic, gal ez zaitecen gotic, salbaceco*.
- Zehar galderak. *Non nai dizun iz eguin, pensazazu cer eguin duten*.

6.2.4. *Lexikoa*

Hauxe dugu hiruretan testurik laburrena eta, horrexegatik, irudi zukeen lexiko-mailan aipatzeko hitzik gutxien eskainiko ligukeena izanen zela. Baina ez da horrela izan, ezen hitz neurtuz idatzia izan zenez gero, bertsoaren egiturak eta izaerak eskatzen duen moduan, kondentsaziora jotzea ezinbestekoa suertatu zaio egileari eta elipsien baliabidea ere maiz erabili behar izan du. Orduan, testuko ia hitz guztiak dira lexikoaren atalean jasotzekoak, egia bada ere aurreko testuen kasuen antzera, ez direla bertan agertzen zaizkigunak bereziki dialektologiaren aldetik ondorio nabarmenak ateratzeko modukoak.

<i>adi</i>	‘Adi(tu), entzun’.
<i>ardi galdua</i>	‘Galduta dabilen taldekidea’.
<i>arima</i>	‘Espirituzko osagaia’.
<i>arren</i>	‘Mesedez, faborez’.
<i>arzai</i>	‘Artzain’. Aranatzan <i>artzei</i> .
<i>atu</i>	‘Hartu, jaso’. Errata da.
<i>bekatu/pekatu</i>	‘Bekatu’.
<i>bialdu</i>	‘Bidali’. Aranatzan <i>bieldu</i> , partizipio analogikoa (Erdozia, 2001, 242. or.).
<i>condenatu</i>	‘Zigorra jaso’.
<i>convertitu</i>	‘Kristautu’, esate baterako.
<i>deitu</i>	‘Dei egin’.
<i>Demonio</i>	‘Infernuko etsai’.
<i>easan</i>	‘Erasan, esanarazi, adierazi’. Dardarkari samurra eroria.
<i>erte</i>	‘Arte (posp.)’. Hiriberriko predikuan (Salaberri & Urritzola, 2008, 283. or.): <i>ertean</i> .
<i>esai</i>	‘Etsai, arerio, izterbegi’.
<i>galdu</i>	‘Zerbaitez gabetu’.
<i>gotic</i>	‘-gatik’.
<i>guzi</i>	‘Guzti’.

<i>ibili</i>	Erabili aditzaren zentzuan dago testuan, Aranatzan bezala.
<i>ichura</i>	‘Itxura, eitea’.
<i>iz</i>	‘Hitz, ele’.
<i>izuli</i>	‘Itzuli, bihurtu’.
<i>Jangoico</i>	‘Jaungoiko, Jainko’. Aranatzan ere <i>Jangoiko</i> .
<i>jaquin</i>	‘Jakin, zerbaiten berri izan’.
<i>non</i>	‘Zer tokitan’.
<i>ondasun</i>	‘Aberastasun’.
<i>orain</i>	‘Orain, une honetan’.
<i>penatu</i>	‘Nahigabetu, oinazetu’.
<i>pensatu</i>	‘Pentsatu, oldoztu’.
<i>salvatu</i>	‘Salvatu, onik atera’.
<i>zeruco videa</i>	‘Paradisua erdiesteko jarduna’.
<i>zucen</i>	‘Zuzen, artez’.

7. ONDORIOAK

Hiru eskuizkribuen hizkuntza-deskribapena egin ondoren, horiek zer-nolako eus-kara darabilten esaten saiatuko gara atal honetan. Ez da batere erraza egitasmoa, ezen ez baita ziurra horietako azken bien autoretza, eta lehenaren kasuan ere, kaligra-fia begiraturik soilik esan dezakegu Xabier de Goldaratz apezarena dela seguruenik. Bestalde, izkribuak egin zireneko data ere ez da batere zehatza, XVIII. mendearen amaiera eta hurrengo mendearen hasierakoak direla esatea baino ez, eta ezin gehiago zehaztu.

Horrexegatik, orduan, bereziki, eskuizkribuek erakusten dizkiguten ezaugarrietara mugatuko ditugu esan beharrekoak, bertan baliatutako hizkerari dagokionez.

Hirurek ala hirurek dauzkate garaiko (XVIII.-XIX. mendeen artekoak) hedadu-za zabalagoko aztarnak, horietako hirugarrenak gehien, inolako zalantzarik gabe. Aditz-formei begiratu besterik ez da behar horretaz konturatzeko: *bada, gaitu, zaitu, dute, du, duten, digu, dizun, dator, atoz, zabilzana*. Eta horiekin batera, gipuzkerako

moldera egokiturik edo euskalki horren kutsua harturik, Sakana osoan soilik Etxarri-Aranatzen, Lizarragan eta Urdiainen erabiltzen direnak egungo bertako hizkeretan: *dezu, dezuna, degula*. Bestalde, *zan* ('zen') ere aipa dezakegu, Etxarri-Aranatzen, Ergoienan eta Burundan gertatzen den modura. Arbizon eta Arakilen (Erdozia 2001; Irizar, 1998), Goñerrian (Camino, 1999), eta Imotzen (Apalauza, 2008) *zen*.

Lehen eskuizkribua da hurbiltasun zertxobait erakusten duena Arakilgo hizkerarekiko (ez ordea Hiriberriko predikuen mailan) (Salaberri & Urrizola, 2008) eta agian pentsatu beharko genuke bere autorearen abizenak, Xabier de Goldaraz, honen jatorria adierazten digula, hau da, Imotz haraneko goldaraztarra izan zitekeela, ez bera derri-gor, baina bistan da, jentilizioaren arabera, bere aurrekoak behintzat hangoak izan zirela. Orduan, arakildarra ez izanik ere, Arakilgo euskara ia betidanik ezagutzeko aukera izanen zuen.

7.1. Predikua

Bokalismoari dagokionez, bokalez amaitutako lexemei mugatzailea eransterakoan esate baterako, ez da heldu bat egungo Arakilgo hizkerekin (Erdozia, 2001): *ebastea, jaquitea, testoa, chiquiagoa...* Asimilazio aurrerakariaren ondoriozko burutzeak hurbiltzen dira Arakilgoetara bokal itxiz amaitutako lexemen kasuan: *garie, eguie, dañue, isuec...* Eta, bereziki, /u/-rekin heldu da bat Urritzolako eta Irañetako hizkerekin (Egaña et al., 1983-1990).

Asimilazio aurrerakaria da erabat bat datorrena Arakilgo eta Aranazko egungo hizkerekin (*gauce, beguire, presencie, circunstancie, irurec, dire, beguiretu...*) (Erdozia, 2001, 97.-99. or.), nahiz eta salbuespenen bat ere ageri den (*rapiña/rapiñe*). Hiriberriko predikuan ere, asimilazioa nabarmendu dute Salaberri eta Urrizolak (2008, 269. or.). Eta gauza bera egin du Apalauzak (2008) Imotzen.

Beste zerbait nabarmentzekotan bokalismoari dagokionez, hasierako /e/ erdiko bokalaren itxiera bi kasutan antzeman dugu (*yguzquie, iduquicea*) eta Nafarroako euskal hizkeretan horren ohikoak diren sinkopa ugari (*drecho, abrasa* –baina *aberasai* ere bai–, *orlaco, ontas, atraceco* –baina *ateraco, atera* ere bai–, *ontatic, orbat* 'orobat'), aferesi bakarrarekin batera (*zagumendua*).

Kontsonantismoaren gainean, esan dezakegu Arakilen eta Aranatzen bezala (bi kontsonanteen kasuan), sistematikoa dela /n/ kontsonante sudurkariaren palatalizazioa /i/ bokal itxiaren ondoren eta askoz ere urriagoak direla // albokariaren palatalizazioa erakusten dutenak, bi baino ez, *famillie* Goldarazen bezalaxe (Apalauza, 2008) eta *allegatu*. Badira, bestalde, dokumentuan palatalizatu gabeko beste zenbait: *bil, ileen*. Aranatzen edo Arakilen (Erdozia, 2004a, 17. or.) ez da *familia* palatalizatzen, bai ordea *allegatu*.

Errotazismoaren aztarna bakarra dugu predikuan, *erraten*, eta gehiagotan ageri zaizkigu bestelakoak: *esaten, esateco, beste, besteric, besteren...* Hau, beste behin, autorearen idazteko era nahasiaren erakusgarri. Hiriberriko predikuetan (Salaberri &

Urrizola, 2008) ere ez da horren aztarnarik eta Arakilen, oro har, ere ez, Caminok (1999, 25. or.) bestela badio ere: «...badakigu *erran* Arakilgo Uhartetik eskuin erabiltzen zela (Satrustegik ahoz esana)».

Zuazok Burundarako dioen moduan (2010, 67. or.) ohikoa da antzinako hasperenaren orde /g/ esatea eta pre dikuan honen lekuko bakarria ageri da, izen bera hainbatean errepikaturik (*agotik*); [x] ageri da bakarrik predikuan (*jaquin, jabe, jaquinsu, Jangoico...*) (ez da /x/-ren [ʃ] arrastorik); eta *ez* aditzondoarekin eta aditz nagusiak laguntzailearekin sortutako sandhiak badira Arakilen (Salaberri & Urrizola, 2008), Aranatzaren bezala (Erdozia, 2001).

Morfologiari erreparatuz gero eta deklinabideko kasuei dagokienez, esan behar dugu partitiboan, datiboan eta edute-genitiboan ez dela inoiz predikuan dardarkaria galtzen, bai ordea Arakil mendebaldean, Aranatzaren eta Burundan (Erdozia, 2001, 2006).

Soziatiboan, ablatiboan eta motibatiboan ere, ez da predikuan amaierako kasuan kasuko kontsonanterik galtzen, soziatiboan hiru aldiz baino ez (*ceñequi, condicioarequi* eta *abequi*). Aranatzaren (Erdozia, 2001) era sistematikoan gertatzen da amaierako hiru kasuetako kontsonante galtzea eta Arakil mendebalean (Erdozia, 2001), aldiz, batzuetan bai eta besteetan ez. Imotzen *-kin* eta *-gatik* orokorrean eta biak ablatiboan (Goldaratzaren *-ti/-tati*) (Apalauza, 2008).

Instrumentalean *-s* da baliaturiko morfema predikuan, Arakilen (Hiriberriko predikuetan (Salaberri & Urrizola, 2008) biak, bizkarkaria eta apikaria, baina bigarrena maizago) eta ondoko Aranatzaren (Erdozia, 2001) eta Imotzen (Apalauza, 2008) bezala. Eta inesiboa izen bizidunekin doanean, behin baino ez bada ere, *besteren baiten*, Arakilgoaren eta Aranazkoaren antzera.

Erakusleen kasuan, *ore* absolutiboko hirugarren graduko izenondo singularra (Imotzen erabiltzen da, Goldaratzaren izan ezik) dugu aipatzeko (Apalauza, 2008), *arrec* ergatibokoarekin (Arakilen eta Aranatzaren ere bai) (Erdozia, 2001) eta edozein dela deklinabide kasua, hasierako diptongoaren haustura eragiteko /b/ kontsonantea daramatenak pluraleko lehen eta hirugarren gradukoekin (*ebetaco, abequi, ebetan, ebec*).

Erdal *-on* atzikia, predikuan bi aldiz ageri da *-ue* amaierarekin, finean hitz bakarra bada ere eta ez da bestelakoetan gertatzen: *arrazue onengatic, borondate arrazuescoaren*. Imotzen *arrazore/arrazure* darabilte (Apalauza, 2008) eta, azkenik, Aranatz-Arakil mendebalean gutxienez (Erdozia, 2001): *arrazoi, arrazoisko*.

Aditzaren berezitasunak aipatzerakoan, lehen-lehenik esan behar da prediku guztian *-en* dela etorkizuneko morfema, kontsonante sudurkaria edo albokaria amaieran duten aditzen kasuan (*izanen dire, izanen* da *-bi* aldiz-, *eztuela eguiñen, ileen denac*) eta *-ko* besteetan (*conseguituco dugu, pagatuco dutela*). Arakilgo, Aranazko (Erdozia, 2001, 2004b), Imozko (Apalauza, 2008) eta Nafarroako beste hainbat euskal hizkerek (Zuazo, 2003, 2010) bat egiten du, beraz.

Nor-nori eran, behin baino ez bada ere, Aranatzan eta Arakilen erabat ohikoa den *-ki-* erroduna (Imozko Erason eta Muskitzen ere bai lehen aldian) dakar predikuak, nahiz eta gainerakoak bestelakoak izan: *ebasi balaquio* ('ebatsi balitzaio'), baina *eguiten bazaio, seguicen zaionean, zaioten...*

Irañetan, Ihabarren eta Urritzolan baliatzen dituzten pluraleko bigarren eta hirugarren pertsonen *-te* morfema, soilik kasu pare batean darabil predikugileak hirugarren pertsonaren kasuan eta subjuntiboan (*paga chaste* 'paga bitzate/itzazu', *quendu zagutzen* 'kendu diezaguten'). Imotzen ere, *-zte* eta *-te* baliatzen dituzte hurrenez hurren bigarren eta hirugarren pertsonetan (Apalauza, 2008). Arakil mendebaldean eta Aranatzan *-zub(i)e* eta *-b(i)e* (Erdozia, 2001).

Aipagarria era berean, behin baino azaltzen ez bada ere, *-(r)en -t(z)era* egitura, hau da edute genitiboa baliatzen duena absolutiboaren ordeztu: *eta daude obligaturic restitucioen eguitera*. Ekialdeko hizkeretan erabiltzen dute hau, baina ez Egiarreta ingurukoetan gaur egun bederen. Ez Arakilen bertan, ez Aranatzan eta Imotzen ere ez (Erdozia, 2001, 2004b; Apalauza, 2008).

Lexikoari buruz esan dezakegu, hasteko, ez dela bereziki aberatsa eta gainera erlijioaren gaiari lotutako erdal izen ugari darabiltzala. Hiriberriko predikuetakoarekin alderaturik ere, gutxi dira komunean agertzen zaizkigunak. Hona aipagarrienak: *aski, bekatu, esan* (*erran* ere behin Egiarretakoan), *guzi, paratu, sinestatu, solo* ('solamente' Hiriberrikoan).

Bestela, hauexek dira aipamena merezi dutenak, erabilera orokorrekoak izan ez edota eremu dialektologiko ezberdinetakoak direlako: *a(ha)ide, ab(e)rats, adiskide, ago, anitz, at(e)ra, ebatsi, esperatu, guti, iduki, iguzki, itzuli, Jaingoiko, manatu, nause, nirabe, or(o)bat, pagatu, probe, txiki*.

7.2. Jarraibidea

Aurreko testua baino urrutiago sumatzen dugu arakileratik. Autorea Joseph Miguel de Eyaralar izan daitekeela esaten genuen eskuizkribuen testuingurua marrazten aritu garenean eta abizenetako daukan jentilizioa eta honek egilearen jatorria adieraziko balu, normala da Egiarretako edo Arakilgo hizkeretako ezaugarri askorik ez agertzea, are normalago jakinik urte gutxi egin zituela Egiarretan.

Bokalez amaituriko lexemei mugatzailea eransterakoan, emaitzak ez dira Arakilgo hizkeretako dialektalak bezalakoak: *emazteak, Jangoikoa, sandua...* Asimilazio aurreraria, bestalde, bi kasutan baino ez da gertatzen (*jaune, elizeco*), baina behin baino gehiagotan bi horiek asimilatu gabe ageri dira (*jauna, eliza*).

Beste zerbait aipatzekotan, /au/ > /a/ monoptongazioa erakusten duten hiru kasu (*ar-kitu, Jangoiko, arrean*), nahiz eta azken hau, seguru asko, akatsa izan.

Deklinabideko instrumentaleko *-s* morfema (behin bakarrik) eta prolatiboko *-tako* behin baino gehiagotan agertzen dira, Arakilen, Aranatzan (Erdozia, 2001)

eta Imotzen (Apalauza, 2008) gertatzen denaren antzera: *izesco*, *aldis*, *senarretako*, *emaztetako*. Baina ezin gauza bera esan destinatiboari buruz, ondorengo bi kasuetan ikus daitekeen moduan: *Jangoikoarentzat*, *berontzat*.

Aditzaren atalean, pluraleko bigarren eta hirugarren pertsonetan *-te* morfema erabiltzen da kasu guztietan: *diotet* ('diet'), *dizutet* ('dizuet'), *zauten* ('zaudeten'), *bezate*. Imotzen (Apalauza, 2008, 114.-115. or.) eta Arakil ekialdeko (Irizar, 1991) gainerako hizkeretan bezala.

Behin baino ez bada ere, etorkizuneko *-en* morfema ageri da, Nafarroako euskal hizkera gehienetan bezala: *izanen*.

Lexikoari dagokionez, eskuizkribu hau aurrekoa baino askoz ere laburragoa izanik, gutxiago dira Sakanako hizkera eremuarekin aipatzekoak ere: *heldu izan* ('etorri'), *Jangoiko*, *senar*, *emazte*, *bake*... Beste hauek, bat datoz aurreko predikukoekin: *abaide*, *or(o)bat*, *paratu*, *arkitu*... Eta, azkenik, ugari dira autoreak erabili dituen erdal hitzak: *obeditu*, *rezibitu*, *sufritu*, *esponsatu*, *manifestatu*, *rekiritu*, *presente (egon)*, *libremente*, *esposo*, *entregatu*.

7.3. Erljio-bertsoa

Hauxe dugu hiru eskuizkribuetan *arakileratik* urrutien dagoena. Ez du ia ezer berezirik aipatzeko fonologiaren edo morfologiaren ikuspegitik.

Deskribapenean esandakoaz gain, lexiko mailako hitz batzuk aipatuko ditugu, horietako gehienek badutelako haien sinonimo edo aldagai ezberdina: *arren*, *artzai*, *bekatu/pekatu*, *bialdu*, *ertean*, *Jangoiko*, *guzi*, *ibili* ('erabili'), *itxura*, *etsai*. Ez du erdal hitzik ia baliatu.

8. ERREFERENTZIAK

- Apalauza, A. (2008). *Imozko euskara*. Nafarroako Gobernua.
- Camino, I. (1999). Goñerriko hizkera (I). *ASJU*, 33(1), 5-78.
- Egaña, M., Artola, K., Arbelaitz, J. J., Leizaola, F. (1983-1990). *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa*. Aranzadi Zientzia Elkarte.
- Erdozia, J. L. (2001). *Sakana erdialdeko euskara*. Nafarroako Gobernua.
- Erdozia, J. L. (2004a). *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua; Euskaltzaindia.
- Erdozia, J. L. (2004b). Irañetako euskara. *FLV*, 97, 487-518.
- Erdozia, J. L. (2006). *Altsasuko euskara*. Sakanako Mankomunitatea-Altsasuko Udala.
- García-Sanz, A. (1985). *Demografía y sociedad de la Barranca de Navarra (1760-1860)*. Nafarroako Gobernua.
- García-Sanz, A. & Zabalza, M. A. (1983). Consecuencias demográficas de la Guerra de la Convención en Navarra. La crisis de mortalidad de 1794-1795. *Príncipe de Viana*, 168-170, 63-88.

- Goenaga, P. (1980). *Gramatika bideetan*. Erein.
- Irizar, P. (1991). *Morfología del verbo auxiliar alto-navarro septentrional*. Euskaltzaindia.
- Madoz, P. (1845-1850/1986). *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Ámbito.
- Martínez, E. (2004). *Violencia y muerte en Navarra: guerras, epidemias y escasez de subsistencias en el siglo XIX*. UPNA-NUP.
- Miranda, F. (1980). Evolución demográfica de la merindad de Pamplona de 1787 a 1817. *Príncipe de Viana*, 158-159, 97-134.
- Real Academia de la Historia. (1802). *Diccionario Geográfico-Histórico de España. Sección I. Comprehende el Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya, y provincias de Alava y Guipúzcoa* (1.-2. libk.). Imprenta Viuda de Don Joaquin de Ibarra.
- Salaberri, P. & Urrizola, R. (2008). Hiriberri Arakilgo predikuak I. Transkripzioa eta azterketa. *FLV*, 108, 263-290.
- Zuazo, K. (2003). *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*. Elkar.
- Zuazo, K. (2010). *Sakanako euskera. Burundako hizkera*. Euskaltzaindia; Nafarroako Gobernu.

